

Okzitaniako A69 autopistaren aurkako mobilizazioa pil-pilean

LURRAREN ALTXAMENDUAK

26-31. orrialdeak

#2.877 | 2024 / 06 / 30 | 4,00 €



Frantziako Legebiltzarra irauli dezaketen hauteskundek

32 | POLITIKA



“Erabiltzaileak bihurtu behar ditugu parte hartzaileago”

44 | LIBURUTEGIAK



LARRUN #297
Nola irakurzaletu ikasleak

 ARGIA.eus/podcast

EHZ[★] festibalean saio berezia

Larunbat goizean bi gonbidaturekin

Uztailak 2 asteartea, 20:00etan
Kanalduden eta ARGIA n ikusgai

Elkarlanean:

 KANALDUDE
telebista

 ARGIA



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: ANTOINE BERLIOZ / HANSLUCAS


Iritziak

- 21 | BALEREN BAKAIKOA
- 22 | NEREA IBARZABAL
- 23 | J. IGNAZIO ANSORENA
- 23 | EVA PEREZ PONS
- 24 | BEÑAT MUGURUZA

Finkoak

- 39 | ARGIA KOMUNITATEA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 49 | DENBORAREN MAKINA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO
BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



VERSO LIBROS

36 | KEVIN B. ANDERSON

Marx ertzetan liburuaren egilea elkarrizketatu du Imanol Oiarzabalek. Mintzatu dira Marxek generoaz eta ingurumenaz idatzi zuenaz, egungo garaia Lehen Mundu Gerraren aurreko urteekin dituen antzekotasunez eta baita egungo ezkerreko mugimenduez ere.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL | CRMA LEGEA

Mineralen eta metalen horniketa bermatzera datorren lege fidagaitz hori

Jenofa Berhokoirigoin

16 | PERTSONAIA | MAIDER ARREGI

“Parafernalia eta politika ere bai, baina guk bertsoan egiten dugu”

Danele Sarriugarte

26 | INGURUMENA

Okzitaniako A69 autobidearen aurkako mobilizazioa: Borroka eredu berrien territoria

Sukar Horia

32 | FRANTZIAKO LEGEBILTZARRA

Inoiz baino gehiago, eskuin muturra boterera eraman dezaketen bozak

Jenofa Berhokoirigoin

44 | KULTURA |

N. CASTELLANO-F. BURGUILLOS

“Liburutegi orok izan behar du dagoen lekuko biztanleen nukleo kulturala”

Gorka Peñagarikano


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEREN
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Jabetza

 Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

 Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirigoin,
Jon Torner, Julen Ugartemendia,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Manex Usarralde,
Mikel Garcia, Onintza Irueta,
Olaia L. Garaialde, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

 Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze,
Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

 Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


Doan eta libre

 ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta argitaratu
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta
baldintza beretan eginez gero.

 Lizentzia hau baliagarria da
testuentzat eta, argazkien eta
ilustrazioen kasuan, ARGIAren
sinadura daramatenentzat soilik.

 Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA

Eskubide pribatuak?

2022an Nafarroan egindako abortuen %73 eta EAEkoen %95 klinika pribatuetan egin zituzten. Osakidetzak haurdunaldi eteteak enpresa pribatuetara bideratzen ditu. Diru publikoa enpresa pribatuetara emanda, etekina helburuen artean sartzen da eta emakumea, haren ongizatea eta prozesuaren kalitatea bigarren maila batean geratzeko arriskua handitzen da. Eskuin mutur anti-abortista ate joka egonda, ez dirudi oso eraginkorra denik eskubide unibertsala beharko lukeena negoziio pribatuen esku uzten jarraitzea.

📍 Itaiaren mobilizazioa Gurutzeta ospitalean. MIKEL MARTINEZ DE TRESPUNTES / FOKU

🔗 AXIER LOPEZ

“Ez zidaten sedatzeko aukerarik
eta kirurgia oso mingaria izan
nahiz eta anestesia jarri zidatez”

Abortatu ondoren dol-jario handia
izan nuen eta larrialdietako
zerbitzura joan behar izan nuen.”

OSAKIDETZAN ABORTU ESKUBIDEA URRATZEN DA! itaia

DOAKO ABORTU UNIBERTSALA
ETA KALITATEZKORRA!

ERTSALA

ABORTU UNIBERTSALA ETA KALITATEZKOAI itaia

kontzientzia

ABORTU UNIBERTSALA ETA KALITATEZKOAI itaia agin

bortatu ondoren dol-jario handia
an nuen eta larrialdietako
erbitzura joan behar izan nuen.

“Ez zidaten sedat
eta kirurgia oso n
nahiz eta anestes

OSAKIDETZAN ABORTU ESKUBIDEA URRATZEN DA! itaia

AKIDETZAN ABORTU ESK



Israelek “zehaztasun handiz” ezagutzen zuen Hamasen U7-ko plana, Kan irrati publikoak informatu duenez

 JON HIDALGO GEREÑU

Israeleko inteligentzia zerbitzuek “zehaztasun maila handiarekin” ezagutzen zuten Hamasen erasorako plana urriaren 7a baino hiru aste lehenago. Bazekiten milizia palestinarrek asmoa zuela “200 eta 250 zibil eta militar” artean bahitzeko eta Israel hegoaldeko base militarrei eraso egiteko. Kan irrati publiko israeldarrak eman du argitara inteligentzia zerbitzuen isilpeko txostena eta hedabide ugari egin diote oihartzun. Bertan azaldu du urriaren 7ko erasoak baino hiru aste lehenago banatu zela. Hamasen ekin-tza horrekin justifikatu du Israelek Gazako genozidioa, zortzi hilabetetan 37.000 palestinar baino gehiago hil dituen, beste 10.000 desagerrarazi eta 85.000tik gora zauritu.

Armada sionistaren Gazarako dibi-sioak 2023ko irailaren 19an helarazi zien Hamasi buruzko txostena inteligentzia zerbitzuko buruei. Bertan ohar-tarazi zieten Hamaseko militanteak prestakuntza saioak egiten ari zirela, lantzeko nola sartu gune militarretan eta kibutzetan. Txostenak aipatzen du zibilen eta soldaduen bahiketak presta-

Azken hilabeteetan hainbat iturrik salatu dute armada sionistak zibil eta militar israeldar ugari hil zituela urriaren 7an, Hamasen oldarraldiari erantzutean

tzen ari zela Erresistentzia Islamikoaren Mugimendua. Hamasek emandako argibideak ere jaso ditu txostenak, azaltzen dutenak zer baldintzatan eduki behar ziren bahituak, behin Gazako Zerrendara eraman ostean.

Aurretik ere, abenduan, *New York Times* egunkariak argitaratu zuen Israelek urtebete lehenagotik bazuela Hamasen asmoen berri, baina egunotan argitaratutako informazioak zehatzagoak dira.

SEGURTASUN AKATSEI BURUZKO IKERKETA BERTAN BEHERA

Urriaren 7an Hamaseko 3.000 militante inguruk lortu zuten Gazatik atera eta

“Israelera sartzea”. 250 pertsona inguru bahitu zituzten eta 1.139 pertsona hil, horietako 373 militar sionistak. Ordu-tik ikerketa bat egon da martxan egun hartako segurtasun akatsak aztertzeko eta erantzukizunak banatzeko Israelgo agintari militar eta politikoen artean, baina aldi baterako bertan behera uztea agindu berri du Israelgo Auzitegi Gore-nak. Uztailean berrartuko da armada-ren eta Shin Bet inteligentzia zerbitzuen kudeaketari buruzko ikerketa, gerra indarrean dagoen bitartean jarraitzea “kaltegarria izan daitekeelako”.

Azken hilabeteetan hainbat iturrik salatu dute armada sionistak zibil eta militar israeldar ugari hil zituela urriaren 7an, Hamasen oldarraldiari erantzutean. Gutxienez 14 zibil israeldar, NBERen ikerketa batek erakutsi duenez. Dokumentatu dutenez, “adierazle nabarmenak” daude “Hanibal direktiba” indarrean egon zela egun hartako hainbat momentutan. Ofizialki 2016an baztertu zen direktiba honek baimentzen du “israeldarrak hiltzea” militante palestinarrei eraso egiteko, ez ditzaten israeldarrak bahitu eta presio egiteko erabili.

Segurtasun akatsen ardurak apenas izan du eraginik Benjamin Netanyahu-ren gobernuan. Azken hilabeteetan bi agintari militarrek soilik eman dute dimisioa urriaren 7ko gertakariekin lotuta, eta inteligentzia zerbitzuen buruak barkamena eskatu du baina karguan dirau oraindik. Lehen ministroak ez du oraindik erantzukizun politikorik onartu.

150.000 pertsonak eskatu dute Netanyahu-ren dimisioa joan den astean Tel Aviven egindako manifestazioan, Israelgo iturrien arabera. Benny Gantz Netanyahu-ren aurkari politikoak dimisioa eman du “larrialdiko batasun gobernutik”, esanez lehen ministroa “gerra luzatzen ari dela interes pertsonalagatik”. Izan ere, Netanyahu Israelen epaitua izateko zain dago, baina auzitegiei iskin egiteko baliatu du “Hamasen erasoei erantzunez hasitako gerra”. ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Desfilean



UXUE APAOLAZA LARREA

Ultraeskuina desfilean dabil, plaza erdiraino ekarri dute karroza, eder sentitzen dira, topera bolumena. Eta hauteskundeak irabazten dituzte. Eta, izututa, geure buruari begira jarri gara. Eta dena gaizki. Azken aldiko inbento guztiak gaizki; nola ez zen azalduko Milei, ezkerra horrela badabil. Eta mundu osoko ezker guztiak gaizki. Eta hasi gara bakoitza bere lekutik iletik tiraka, norbere buruari itxuraz (autokritika), ondo-ondokoari berez.

Migrazioa. Gaizki. Ez gara gaiari buruz ganoraz hizketan ari, eta arazoari ez bazaio behar bezala heltzen, eskuinak eramango du... Eta Hibai Arbidek askatzen du zure eskua iletik berearekin masaileko eder bat emateko: "Ez dut onartzen immigrazioa eskuin muturra geldiarazteko ezkerrek heldu beharreko arazo bat dela dioen diskurtsorik. Immigrazioa ez da arazo bat, punto". Eta feminismoa? Zenbait ezker oso gaizki dabil, programan puntu bat behar lukeena puztu eta alderdiaren eskaparatea emakumez betez, emakumeen intereseko gaiekin tematuta, eta ohartu ere ez horrek ezkertiarrek urrunduko zituela, izan ere, ezkerre zer da klaseez, langile borrokaz ahaztu, eta bazterreko txikikeriei begira jartzen bada. Eta nor ari da ekonomiaz, industriad...

Agian, hobe ondokoaren buruko ileak askatu, eta erreazio faxistak sortu dituztenak txalotu eta babestu: akatsa arrazismoa baita, matxismoa, eta horien aurka-koak zigortzen dituztenak. Soberan beste batzuk daude, eta desfilean dabilta. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Euskara

Baxoko ahozkoa euskaraz egin nahi duten ikasleei laguntzeko, ekintza egingo dute ehun bat irakaslek. Soinean ahobizi eta belarriprest txapak eramango dituzte, ikasleei adierazteko "babes osoa" dutela euskaraz mintzatuz gero azterketan.

Kultura

Kike Diaz de Rada hil da, aktore, antzerki zuzendari eta idazle donostiarra. Ibilbide luzeko aktorea, zineman eta telebistan aritzeaz gain Orain antzerki taldearen eta Tanttaka Teatroaren sortzaileetako bat izan zen. 64 urterekin hil da, ekainaren 19an.

Hezkuntza

Nafarroako Gobernuak 2020an agindutako eraikin berria exijitu dute Antzineko Lokiz eskolako familiek. Duela zazpi urte D ereduaren aldeko apustua egin zuten, eta desagertzeko zorian zegoen eskola, txiki geratu da orain. Eraikin berria behar dute.

Patxi Ezkiagak adin txikikoei egindako sexu abusuen berri zuen La Sallek

JULEN UGARTEMENDIA CARCEDO

Marisol Zamora izan zen Patxi Ezkiaga idazle eta elizgizonaren sexu abusuak salatu zituen lehen emakumea. Maiatzaren 30ean eman zuten horren berri *El País* egunkariak. Horren aurrean, Legorretako Udalak publiko egin zuten edozein eratako sexu-erasoak “irimo gaitzesten” zituela, bereziki adin txikikoei egindakoak. Babesa adierazi zion Marisol Zamorari eta hiru neurri hartu zituen: Patxi Ezkiaga Lasari herriko seme kuttun izaera baliogabetzea, Patxi Ezkiaga Kultur Etxea hemendik aurrera Kultur Etxea izendatzea eta haren omenez eginiko eskultura Etxezarreta auzoko parketik kentzea.

Sexu abusuen jakitun zen La Salle ikastetxea 1990eko hamarkadatik eta horren aurrean ez zuten neurririk hartu, *El País*ek jasotako hainbat ikasle ohien testigantzen arabera.

24 dira *El País*ek jasotako testigantzak Ezkiagaren sexu abusuen inguruan. Izaskun Iparagirre, La Salleko Isabako kanpamenduko monitorea izandakoa, zentroari Ezkiagaren gehiegikeriez ohartarazi zion lehen pertsona izan zen. “Ordenako gainerako anaiek ez zekiten nola gelditu, ikastetxeari kalterik egin gabe”. Udako kanpamenduetan, urtero ikasle berri bat eramaten zuela ere kontatu du, eta arratsaldeetan “bizpahiru orduz desagertzen” zela ikaslearekin. Jarrera horiez informatzean, arduradunen erantzuna “hitz egin berarekin, ea kasu egiten dizun” baino ez zen. Beste biktima batek kontatu du sexu abusuen berri eman ziotela konfiantza gehien zuten irakasle bati eta horrek “barre egin” zuela. Ezkiaga denboraldi baterako Erromara bidali zuten eta hilabete batzuen buruan zentrorra itzuli zen. Izan ere, Marisol Zamorarak dio ez dagoela jasota lekualdaketa salaketan eragina izan zela. ●

ANALISIA



KRAKEN IMAGES / FREEPK

Haurreskoletako 0-3 zikloa haustearen ondorioak

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

O-3 urteko umeak hartzen dituzten haurreskolen zikloa apurtu eta 2 urteko umeak ikastetxeetan matrikulatzeko ateak ireki dituzte Nafarroan. EAEn aspalditik ezagutzen dituzte horren ondorioak: “Inor ez dago erabakiarekin gustura”.

Hurrengo ikasturtetik aurrera, Nafarroako hiru ikastetxe publikotan 2 urteko umeen gelak gehituko dituzte, proba pilotu gisa. Gobernuak egoki baloratuz gero, 2 urteko gelak ikastetxeetan orokortu daitezke, eta garbi salatu du Steilasek: ez da kasualitatea Nafarroako Gobernuak iragartzea 0-3 zikloa doakoa izango dela, eta orain 2 urteko umeak haurreskoletan ez baizik ikastetxeetan eskolatu nahi izatea.

Haur Hezkuntzan, 0-3 adinak ziklo bat hartzen du bere osotasunean, beraz logikak agintzen du 3 urte bete arte espazio eta dinamika jakin bat mantendu beharko litzatekeela, baina sarri ez da logika gailentzen dena. Haur hezitzaileen munduko elkarteak esana da: 2 urteko umeak ez lirateke ikastetxeetara bideratu behar, adin horretan giro jakin bat behar dutelako (pedagogikoki, baina baita arkitektonikoki eta antolamendu aldetik ere), lehenengo zikloko zentroetan (alegia, haurreskoletan) bermatzen zaiena. Benetan egokituta al daude Nafarroako ikastetxeetako instalazio, ordutegi eta antolamenduak, 2 urteko haurrak hartzeko?

EAEn kasik hamarkada bat bete da orokortu zenetik eskoletan 2 urteko umeak hartzea, agintariak hala erabakita. “Zentzu pedagogikorik ez daukan erabaki politikoa da, ziurrenik ikastetxe pribatuak hasi zirelako 2-3 urteko gelak berenganatzen eta joera horri erantzuteko”, salatu zuten ARGIA Idoia Karrera eta Nerea Gomez haurreskoletako hezitzaileak: “Ikastetxerako saltoa bortitza egiten zaie ume eta familia askori, horrela adierazten digute urtero. Eskola eta patio handi batera egiten dute jauzi, irakasle bakarrarekin, familiek ere ez dituzte ateak hemen bezain irekiak... 0-3 oso etapa espezifikoak da, beste modu batera egiten dugu lan, eta horren isla da irakaskuntzan ez dutela 2 urteko gela nahi izaten, 3 urteko gelan egiten dutena egin nahi dutelako 2 urteko gelan, eta hori ezin da. Guri berriz, zikloa borobiltzeko aukera moztu digute. Inor ez dago erabakiarekin gustura”. Hori bai, haurra erdigunean jartzen duten politikak bulzatu nahi dituztela saltzen jarraituko dute agintariak. ●

200

kirolari frantziarrek manifestu bat sinatu dute eskuin muturraren kontra. L'Équipe kirol egunkariak argitaratu du eta besteren artean, Jo-Wilfried Tsonga eta Marion Bartoli tenislari ohiak eta Marie-José Percec atleta ohiak daude sinatzaileen artean.

“Gertatutako guztia ezagutaraztea da tortura desagerrarazteko modurik eraginkorrena”

NAFARROAKO TORTURATUEN SAREA

Nafarroako Gobernuak 2005-2011 aldian torturatutako herritarrak onartu ditu biktima gisa.

2024-06-18



25

herrialdek baino gehiagok hartuko du parte datorren azaroaren 8tik 10era Bilbon egingo den Europako Hizkuntzen Berdintasunerako Sarearen batzar nagusian. Europako hizkuntza minorizatuen topaleku bilakatuko da Euskal Herria.

“NAFARROAKO HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA OZTOPATZEN ARI DA, LEGEAK EZARTZEN DUENAREN KONTRA”

HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA

Nafarroako Gobernua Oibarren D ereduko haur eskola irekitzea oztopatzen ari dela salatu dute.

2024-06-17

“Bilboko eskola-inguru asko kutsaduraz eta zarataz betetako eremuak dira”

27

erizain zituzten Hego Euskal Herriko ikastetxeek, 18 EAEn eta 9 Nafarroan, Eskola Erizaintzaren Behatokiko 2023ko datuen arabera. Ikastetxeek erizain bat izateko eskaera Eusko Jaurlaritzara iritsi da.



OLATZ ESKIROZ

Porlanezko patio txikiak batetik, errepidez eta autoz jositako eskola-inguruak bestetik, Bilbon ikastetxe askok jasaten duen panorama salatu eta esku hartzeko eskatuz udalera jo dute hiriko guraso elkarrekin.

ARGIA.EUS (2024-06-19)

TEKNOLOGIA

Memoriaren munstroa



DIANA FRANCO

Asteburu euritsu honetan gaztarotik gordeta izan ditudan CD, disko gogor eta USB memoriak hartu eta barruak ikusten aritu naiz; gauza ugari aurkitu dut bertan: inoiz argia ikusi ez duten proiektuak, argazki zaharrak, testuak, antzinako programa piloa... Azken 20 urteetan euskarririk euskarrira igarotzen joan direnak, memoria mugagabea bailitzan. Bizitza osoa dokumentatzen, baina prozesu horretaz kontziente izan barik. Bitartean, zabor elektronikoko ugari sortu dut. Ibilbide honetan, memoria digitala munstro bilakatu zait, begiratu ere nahi ez nuena, eta munstroa kudeatzeko behar zen indarra aurkitzea urteak kostatu zait. Lana hasita, erabaki behar non gorde norberaren memoria? Norbere gailuetan ala besteren baten gailuan (hodeia)? Erabakia hartzeko aldagaiak asko dira: segurtasuna, pribatutasuna, kostu ekonomikoa, kostu ekologikoa, kudeatzeko erraztasunak... Momentuz, antzina argazki-albumekin bezala, nire memoria etxeko ordenagailu zahar batean izatea erabaki dut, aukera hori baitut. Gazte migratzaileekin lanean aritu nintzenean ohartu nintzen nire aukerak eurentzako ezinezkoak zirela, bizitzeko leku finko bat ez dutenek ezin dituzte sistema propioak sortu, euren aukera publizitate enpresen doako hodeiak izaten dira, euren agiri garrantzitsuenen kopia bat non-bait eskuragarri izateko. Bizitzeko aukeren gabezia, bizitzak instituzionalizatzen dira, eta instituzionalizaturiko bizitzetan pribatutasunaren aukera desagertu egiten da, zelataritza etengabe baten baitan bizitzera ohituta. Memoriaren munstro honi aurre egiteko teknologia zaharrak erabiltzen ari dira zenbait euskal gazte, argazkien kasuan: karrete kamera. Nahi izanez gero, sistema digital propioak eraiki ahal izango lituzkete, baina badirudi gutxiago izatearen bila daudela: konplexutasun gutxiago, kudeatzeko gutxiago, eduki gutxiago.

Momentuz, ditudan "hilotz elektronikoko" hauekin zer egin pentsatzen nabil; USB memoriak eta disko gogorrak berrerabil ditzaiket, baina CDak baratzean txoriak usatzeko erabilgarri izango dira soilik. ●

NAZIOARTEA

Migranteak itsasontzitik botata ito dituzte Greziako kostazainek, BBCren arabera

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Ekainaren 16an Britainia Handiko BBC telebista kateak publiko egin duenez, Greziatik Europara joan nahi zuten pertsonak modu basatian hil izan dituztela frogatzen duten lekukotasunak bildu dituzte. Greziako uretatik irten eta brankatik behera itsasora bota dituzten bederatzik kasu publiko egin dituzte.

Lekukotza gogorrak bildu dituzte BBCko Lucile Smith eta Ben Steele ikerketa kazetariak: "Bi pertsona bota zituzten ontzitik eta nola ito ziren ikusi genuen, gero ni bota ninduten"; "bizkarrean lotu zizkidaten eskuak eta itsasora bota ninduten, zorionez esku bat askatzea lortu nuen, baina gure taldeko hiru pertsona ito ziren", "nire familiakook airez puztutako ontzi batean sartu gintuzten itsaso erdian eta balbula ez zegoen ongi itxia, berehala hasi ginen urperatzen, ikusten gintuzten, eta hor utzi gintuzten (...) zortzi haur hil ziren".

BERROGEI TESTIGANTZA

Greziako kostazainen legez kanpoko praktika kriminalak salatzeko dituzten 40 lekukotza bildu ditu BBCk, eta horietatik bederatzik adierazi dute brankatik behera bota zituztela, batzuek, eskuak lotuta.

Europara heldu nahian beren herrialdeetatik ihesi, iaz Greziara 41.561 pertsona iritsi ziren. Greziako mugazainen bortizkeria eta legez kanpo jendea bueltan Turkiara eramaten dutela salatu dute ehunka aldiz gobernu kanpoko erakundeek. Greziako Gobernuak ukatu egiten du praktika hori erabiltzen denik.

Orain, ordea, lekuko zuzenek salatu dute itsasora bota izan dituztela ito asmoz. Greziako agintariak, kazetaritza informazio horien aurrean, ikerketa abiatu dutela esan dute. ●





INSIDE NATURE NEWS

2030erako lur eta itsas eremuak %20 lehengoratzeko araudia onartu du Europar Kontseiluak

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Ekainaren 17an onetsi du Europar Kontseiluak Natura Lehengoratzeko Legea, hiru hilabeteko blokeoaren ondoren. "Mugarri gako bat da kontinenteko ekosistemen babeserako eta berreskurapenerako", esan dute hainbat elkarte ekologistek, besteak beste, BirdLife Europe, ClientEarth, EEB and WWF Naturarentzako Funtsa taldeek.

Europako Batasuneko estatukideen betebeharra izango da haien lur eta itsas eremuen %20 berreskuratzea 2030. urterako, eta hurrengo bi hamarkadetan, lehengoratzeara behar duten ekosistema kaltetu guztiak ere berreskuratu beharko dira. Horrez gain, xedetzat ditu legediak ondoko puntuak ere: energia hidraulikoaren konexioa hobetu eta oztopo artifizialak ezabatzea, intsektu polinizatzaileen galera etetea, basoetan uzten diren zuhaitz hilen egur kopurua handitzea eta hiriguneetan berdeguneak hedatzea.

OPOSIZIOA OZTA GAINDITUTA

Hiru hilabeteko blokeoaren ondoren, Eu-

ropar Kontseiluak aste honetan onartu du Natura Lehengoratzeko Legea. Otsailaren hondarretan jaso zuen Europako Legebiltzarraren onespina, nahiz Europako Alderdi Popularrak eta ultraeskuintak kontra egiteko deia luzatu. Lehen sektoreko hainbat talde mobilizatu egin dira azken aste eta hilabeteotan, eskuin muturrak hauspotuta, nekazarien interesen aurka zihoalakoan.

Austriaren eta Eslovakiaren jarrera aldaketa premiazkoa izan da, araudia onartzeko gutxieneko baldintza zelako aldeko botoek Europar Batasuneko biztanleriaren %65 ordezkatzea, eta bi estatu horiek gabe ez zen minimo horretara heltzen. Igandean iragarri zuen Austriako Ingurumen gaietarako ministroak, alderdi ekologistako Leonore Gewessler-ek, haien gobernuaren jarrera aldaketa, "politika eta erabaki ausartak" behar direla esanez. Baina ez da nekerik gabe ateratu: Austriako Karl Nehammer gobernuak aurka hitz egin du. Egitasmoaren alde negoziatzeko zilegitasunik ez duela

esan dio, eta krisia zabaldu da gobernuaren osatzen duten alderdi demokratikoen artean.

Azkenean, legearen aurka bozkatu dutenak ondorengo estatu hauek izan dira: Finlandia, Herbehereak, Hungaria, Italia, Polonia eta Suedia. Abstentzio bakarra egon da: Belgika. Gainontzeko estatuki-deek aldeko botoa eman dute.

"GARAIPEN HISTORIKOA"

#RestoreNature edo #NaturaLehengoratu izenpean mobilizatu dira hainbat talde ekologista, BirdLife Europe, ClientEarth, EEB and WWF Naturarentzako Nazioarteko Funtsa taldeak. Ohar bateratuan adierazi dute "mugarri gako" dela onartu den legea, eta Europar Kontseiluaren jarrerak islatzen duela Europako "gehiengoaren konpromisoa".

Aipaturiko elkarten iritziz "garaipen historikoa" izan da, eta horrek "aukera historikoa" zabaldu du kontinente zaharrak uholdeei, lehorteei eta suteei aurre egin behar dien "garai kritikoa". ●

CRMA LEGEA: MINERALEN ETA METALEN HORNIKETA BERMATZERA DATORREN LEGEA IZAN NAHI DU. GAUZA DA, MEATZARITZAKO-ESTRAKZIO HORIEK INGURUMENEAN ERAGINDAKO DESMASIEI SO EGINEZ GERO LASTER OHARTZEN GARELA EZ DELA TRANTSIZIO EKOLOGIKORA GARAMAN BIDEA. GAINERA, NOLA DOAN MUNDUA, OBSERVATOIRE DES MULTINATIONALES-EN IKERKETAK ERAKUSTEN DIGU ARMAGINTZAKO LOBBYGINTZARI ESKER LEGEAK BARNEBILTZEN DITUELA GERRA INDUSTRIAK EZINBESTEKOAK DITUEN LEHENGAIK. TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO BEHARKO LIRATEKEEN MILIOIAK ARMEN EKOIZPENERA BIDERATUKO DITU LEGEAK.

Europa mailako *Critical Raw Materials Act* edo Lehengai Kritikoei buruzko Legea indarrean sartu berri da. Klima larrialdiaren testuinguruan energia berriztagarriak garatzeko, mineralen eta metalen horniketa "seguru eta iraunkorra" bermatzera datorren legea izan nahi du. Gauza da, meatzaritzako-estrazzio horiek ingurumenean eragindako desmasiei so eginez gero laster ohartzen garela ez dela trantsizio ekologikora garaman bidea. Gainera, nola doan mundua, Observatoire des Multinationales-en ikerketak erakusten digu armagintzako lobbygintzari esker legeak barnebiltzen dituela gerra industriak ezinbestekoak dituen lehengaiak. Trantsizio ekologikorako beharko liratekeen milioiak armen ekoizpena bideratuko ditu legeak.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Kalte bat beste kalte batez ordezkatzera garamatza trantsizio ekologikoaren izenean harturiko norabideak. Oraindik ez dugu begibistakoa, hain zuzen ere, kalteak munduaren beste puntan, gure konfortetik urrun, pairatzen dituztelako. Txinako zink meategietara, Txileko litio erauzketetara edota Kongoko kobalto meategietara joaterik besterik ez dago mineralen eta metalen ustiaketa oinarrituriko trantsizioaren desmasiez konturatzeko. Baina goiz ala berant, gurera ere etorriko da, eta Europako Batzordeak martxoan aurkezturiko eta maiatzaren 3an Aldizkari Ofizialean publikaturiko legea dugu uste hori sendotzera datorren azkeneko testu esanuratsua.

Europarentzako mineralen eta metalen horniketa "seguru eta iraunkorra" ekarriko lukeen estrategia dakar CRMA *Critical Raw Materials Act* edo

Lehen Gai Kritikoei buruzko Legeak, eta maiatzaren 23az geroztik da indarrean. "Europar Batasunaren trantsizio ekologikoa lortzeko, beharrezkoa izanen zaigu baterien, eguzki-panelen, iman iraunkorren eta bestelako teknologia garbien tokiko ekoizpenaren indartzea. Lehengai ugari eskuratu beharko ditugu, dagokion eskariari erantzuteko", Europako Kontseiluaren hitzetan. Horretarako lekuko erauzketak eta lehengai horien birziklapena ditu Bruselak helburu. Orotara, beharrezkotzat eta estrategikotzat sailkatu ditu 34 materia eta horietan dira, besteak beste, Europak gehien ustiatutako aluminioa, nikela, kobrea, silizioa eta manganosoa. Adibidez, aurreikusten da mundu mailako aluminioaren eskaera %80 emendatuko dela 2020tik 2050era, hain justu, energia berdeen ekoizpenerako tresna guzietan delako: fotovoltaiakoetan, haize-errotetan,

teknologia numerikoetan, auto elektriko baterietan... Pentsa, auto elektriko batek ezinbesteko ditu litioa, grafitoa, kobalto, nikela, manganosoa, disprosioa, neodimioa, praseodimioa, terbioa, kobrea...

ERABATEKO DEPENDENTZIA

Hori horrela, ondoko helburuak ditu finkaturik CRMA legeak: lehen gai horien estrakzioen %10 gutienez Europan egitea –gaur egun %3an gara–; bertako kontsumoaren %40 Europan transformatua izatea, %25 birziklapenetik errekuuperatzea eta materia baten kontsumoaren %65 baino gehiago ezingo da herri bakar baten menpe izan. Azken puntu horrek badu bere inportantzia gaur egungo giro geopolitiko tentsiodunean. Pentsa, Europan, lur arraroei dagokionez (hamazazpi metal biltzen ditu termino horrek) %98 datoz Txinatik, boroa, berriz, %98 Tur-



PXHERE

SUNTSIKETA Sekulako desmasiak eragiten ditu mineral eta metalen estrakzioak eta ez da egia trantsizio ekologikora garamala garapen horrek.

kiatik eta platinoa %71 Hego Afrikatik. Lehengaien merkatua gatazka, presio, gerra eta akordio iturri izan da betidanik, eta mineralak eta metalak dira XXI. mendeko arma berriak.

Lege horren egingarritasuna zalan-tzan jartzen dute klima eta energiaren alorrean aditu diren Simone Tagliapietra et Cecilia Trasi ikerlariak. Beraien irakurketa plazaratu berri dute *La Commission européenne prévoit une augmentation vertigineuse de la demande de matières premières critiques* (Lehengai kritikoen eskaeraren emendio ikaragarria aurreikusten du Europako Batzordeak) iritzi-testuan. Diote, kontuan hartu gabeko oztopo andana badela legeak dakarren bidean: baimen-prozeduraren konplexutasuna, ongi erroturik den herritarren oposizioa, lehengai horien prezioen ezegonkortasunak dakarren segurtasun falta, azpiegituren eskasa –lur arraroen tratamenterako

Nazioarteko Energia Agentziak dio gaur egungo erreserbetan oinarriturik, 2030erako gertatu daitekeela mineralen eta metalen gabezia


instalazio bakarra da Europan eta birziklapenari dagokionez, ez da bilketa sistema orokorturik eta horren alde doan laguntza ekonomikorik, eta gainera, kalitate aldetik galdezkarria da emaitza-. Bi aterabide dituzte mahai-gaineratzen. Batetik, meategiak biderkatu beharrean, birziklapenaren puntako garapenean azkarki inbertitzea.

"Zinez, hobekuntza nabarmenak lortu daitezke, eta horri esker ttipitu ditzakegu dependentzia baita ingurumenaren kaltetzea ere, bide beretik hornidura erresilienteagoa eta autosufizienteagoa eskuratuta". Bestetik, nazioarteko herri partaide batzuekilako harremanen sendotzearen alde dira.

Ikuspegi dekolonialetik so egin eta balantzea beste aldera makurturik, ohartarazi dezagun Mendebaldearen jarrera kolonial suntsitzailearen mantentzea dakarrela horrek. Funtsean, estrategia ekonomiko horrekin bat doaz Europako Batzordeak hainbat herrirekin izenpeturiko akordioak eta Global Gateway inbertsio fondoa –Europaz kanpoko herrietan inbertitzera bultzatzeko 300.000 milioi euroko diru-laguntzak-. Mineral eta metalen industriak betirako xehatzen ditu inguruak eta bizidun ororen biziak, eta errazegia da guretik urrun kokatzeko jarrera hori.

Europarako 34 lehengai kritikoen hornitzaile nagusien munduko mapa

Iturria: Europako Batzordea, 2023



OHARRA:

* : munduko ekoizpenean duen zatia
Italikoz = estrakzioak martxan
Letra erregularra = prozedura bidean

INPOSAKETAREN TONUA

Metal eta mineralen ustiaketa Europaren baitan garatzeko estrategia horri segi, meategien abiarazteko baimenak lortzeko epea laburtzearen alde egin du Bruselak: "Estrakzio proiektuek baimena jasoko dute beranduenik 27 hilabeteren buruan, eta birziklapen eta transformazio proiektuek, berriz, hamabost hilbatetara". Herritarrekilako elkarrizketari eta ingurumenaren gaineko ondorioen ikerketari tarte ttipia uzten die horrek. Salbuespen bakar batzuk dakarzki legeak, hain zuzen ere, kasu bakan batzuetan inposaketa doi bat ez titzeko-edo. Alta, bada eztabaidagarria meategi horiena, zinezko kutsadurarekin eta suntsiketarekin errimatzten duelako. Nonbait, horregatik ere da hainbeste guti garatua Europan, ingurumenaren babesareko legedia guti duten herrietan kokatzea errazagoa zaielako enpresa pribatuei. Harturiko norabide horretan, ikusteke dago zein heinetaraino iraunen duten Europak harturiko ingurumenaren aldeko legeak eta neurriak.

Kezka iturri dukete norvegiarrek azken asteetako jakinarazpena: 8,8 milioi tona lur arraroko hobia baieztatu du Norvegiaren hego-ekialdean Rare Earths Norway enpresak. 2030erako aurreikusten dute estrakzioaren abia-

2022an, armagintzako Europako hamar enpresa handien lobbygintzarako aurrekontu bateratua 4,7 milioi eurokoa izan zen

tzea. Berri ona da apirilean "energia garbiei buruzko" Norvegiarekin akordio bat izenpetu berri duen Europar Batasunarentzat. Oraingoz ez da lur arraroen erazketarik Europan.

CRMA legeak aitzina eginik, energia berriztagarrien industriako enpresei galdetu zaie hiru urtero egitea beren beharren diagnostikoa. Bruselaren eta estatu kideen helburuak enpresek beharko dituztelako segurtatu. Lobbygintza handia dela erakutsi digu, funtsean, ikerketa kazetaritzan dabilen Observatoires des Multinationales-ek

plazaratu *Du sang sur le Pacte Vert* (Itun Berdea odolez estalirik) erreportajeak. Sektoreko enpresek inork baino hobeki dakite beharrak azkarki emendatzen joanen direla eta lehengaien kopurua mugatua izanik, gabezia –eta beraz inpotentzia– bihar goizerako dutela. Nazioarteko Energia Agentziak argiki dio: gaurko egunean ezagunak diren erreserbetan oinarriturik, 2030erako gertatu daiteke gabezia. Metal eta mineralen eskaera lau aldiz handiagoa izanen delako hemendik hamabost urtera. Europari dagokionez, 2020an Eurmétaux elkarteak eta Louvain (Belgika) hiriko Unibertsitateak idatzitako txostenari segi, 2050ean gaur egungoa baino 35 aldiz litio gehiago beharko da, 26 aldiz lur arraro gehiago, kobaltoaren beharra %330 aldiz emendatuko da, kobrea %35 gehiago eta abar.

ARMAGINTZAKO LOBBYEN PRESIOA

Lehengai horiek berenganatzeko eta bidean ahal bezainbat oztopo guti kausitzeko asmoz bideratu presioak ez dira ttipiak, eta horretan dabil, besteak beste, armagintzaren sektorea ere. Ondokoa irakurri dezakegu Observatoires des Multinationales-en ikerketaren aurkezpenean: "Energia-trantsiziorako mineralen premiei buruzko diskurtso



GURE ONGIZATETIK URRUN Hego hemisferioko herrietan garaturiko sektorea da metalen eta mineralen erazketarena. Hain justu, ingurumenaren babesteko eta langileen errespetatzeko neurri gutien duten herrietan.

ederren gibelean, meatzetako, aeronautikako eta armamentuko erraldioen interesei ederki erantzun die lehengai kritikoei buruzko Europako legeak". Hain zuzen, energia berriztagarrien sektoretik urrun kokatuta diren aeronautikako eta armamenturako sektoreek sekulako lobbygintza egin dute, ezinbestekoak dituzten mineral

eta metalak CRMA legedian sartzeko, eta horrela legeak dakartzan diru-laguntza publikoen sostengua eta ingurumen-arauen desarautzea jaso ahal izateko. Datu bakarra: armagintzako Europako hamar enpresa handien lobbygintzarako aurrekontu bateratua 4,7 milioi eurokoa izan zen 2022an.

Ondoko oharra dakar txostenak:

"Itun Berdearen kostuak igota eta meategiek kaltetu herritarren babesa galarazita, horrek ezin ditzake Europar Batasunaren helburu klimatikoak zangopilatu. Gainera, ez du Europaren segurtasuna bermatuko, azkenean, mundu osora esportaturiko armak eraikitzeko erabiliak izanen direlako metalak". ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
 T. 943 420 624
 info@zinkunegioptika.com
 www.zinkunegioptika.com

f w

Maider Arregi

BERTSOA ETA DIBERTSIOA



PARAFERNALIA ETA POLITIKA ERE BAI, BAINA GUK BERTSOTAN EGITEN DUGU



laz, Señora Sariketa irabazi zuenean, Mainer Arregik “inporta zaizkion jendea eta kausak” aipatu nahi izan zituen agurrean: “Infernu auzokoak, bollerak, marikak, AHTren kontra dabilzan lagunak, okupazioaren aldekoak...”. Horiek denak eta beste batzuk ekarri ditugu hizpidera elkarrizketa honetan.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Señora bertso-sariketaren laugarren edizioa egin zen herenegun [ekainaren 8an] Portugaleten. Zer moduz?

Nahiko pozik nago Señora Sariketak jarraipena eduki duelako ekimen moduan, ze hasieran izan zen ateraldi bat. Gutxi batzuen artean antolatatu genuen, eta bat-batean laugarren edizioa, eta bat-batean gabiltza hurrengo ediziorako zerbait berezia prestatzea pentsatzen. Niretzat Señorak laburbiltzen du bertsoan beste zirkuitu bat sortzearen politikotasuna eta horrek denak ematen digun dibertsioa. Kontzienteki egiten dugun gauza bat da, bertsoaritzaren politizatzekeo transfeminismorantz, baina aldi berean hain ondo pasatzen dugu antolatzen, ez da guztiz esfortzu bat, eta nik bertsoaritzaren hortik gura dut bizi.

Ez da beti horrela izan.

Ni nahiko berandu hasi nintzen bertsoan, 16 urterekin. Herriko bertso-eskolan gehienak gizonak ziren, baina paraleloki bertsoaritzaren feminista gertatzen ari zen. Nik oraindik ez neukan kontakturik, baina Interneten ikusten nituen Uxue [Alberdi] eta Ainhoaren [Agirreazaldeg] hitzaldiak. Zentzu horretan, zuk oraindik bizi dituzu bertsoaritzaren tradizionalaren nolabaiteko misoginia horrek dakartzan ondorio denak zure gorputzean, baina aldi berean ikusten dituzu pertsona batzuk hori analizatzen, eta nahiz eta oraindik bakarrik egon, nik banekien momenturen batean topatuko nuela kolektiboren bat. Nik behintzat horrela bizi izan dut. Uste dut gure aurreko belaunaldiak bizi

izan duela askoz gogorrago gizonetako kontaktu hori, bigarren plano hori.

Zuek ez hainbeste?

Kontrako ezarririk [Uxue Alberdi; Susa, 2019] deskribatzen diren zapalkuntza-formak –norbere eta inguruaren presioa, sentitzea zure ahotsak ez duela balio, ez zabiltzala ezer aportatzen, zure burua gutxiestea–, hori dena sentitu izan dut, noski. Ez da gauza bera zer pasatzen ari den jakitea eta hori konpontzea. Zuk badakizu zapalkuntza-sistema batean zaudela, baina horrek ez du esan nahi jada irten zarenik hortik.

Aurreko belaunaldiak agian bizi izan zituen zapalkuntza horiek modu gordin batean, bakarrik, eta gero



Euskal
Udalekuak

erres

ah !!

Maidar Arregi Markuleta

1996, OÑATI



Bertsolaria eta militante transfeminista. Filosofia ikasi zuen, eta irakasle dihardu. Señora Sariketaren antolatzaila-taldean ibili da hasieratik, eta iaz bera izan zen pameladuna. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako sailkatu berri da, sailkapen-faseko bi saioak irabazita. Infernu auzo okupatuko kidea da.

egin zuten analisisa. Zuek beste puntu batean iritsi zineten.

Analisisa jasota jada.

Zure belaunaldiko batzuen ekarpena bollerismoarena edo kuirtasunarena izan da nabarmen.

Bollo bertso-saioen sorrera bai izan zen inportantea niretzat eta hori bai egin dugu guk. Lehenengoa Saioa Alkaizarekin daukat gogoan. Saioa, Amaia Agirre, ni, Eli Pagola ere hortik ibiliko zen. Ordu-rako bazeuden saio feministak, “Ez da kasualitatea”, adibidez, baina bollo-saioak izan ziren niretzat lehen aldiz emakumetasunari markaje bat egitea transfeminismotik eta aldi berean, aitortza eginez aurreko feminista denei. Ez ginen desmarkatzen aurrekoetatik. Kontrakoa: eskerrik asko orain arteko feminismoari, ze eurei esker biziraun dugu, eurei esker lotu gara bertsolaritzara. Ahalduntze bertso-eskolarik gabe ez dakit jarraituko nukeen bertsotan karrerako urteetan.

Zer beste mugarri egon da zuretzat?

Lehenengoa esango nuke izan zela Oñatiko txapelketa irabaztea eta gero eskolartekoa irabaztea, oso gazte. Uste dut bertsotan jarraitzen dugun tipa askok zeozer irabazi dugula oso gazte: normak ematen dizu onarpen minimo bat nolabait, ona zarela edo, eta hori barik nik ez dakit jarraituko nukeen, eta hori ere esan egin behar da. Gero feminismoan jarriko nituzke mugarri denak.

Bollo-saioak aipatu dituzu lehen.

Iruñean egin genuen lehenengoa, Saioak proposatu zuen, eta ekainaren 28ko testuinguruan izan zen. Hasieran bai egon zen bertigo puntua. Orain bollerak garelako esatea mantra da kasik, baina hasieran – eta ez da orain dela hainbeste, zortzi urte asko jota – ez zen topera animatzen ginen zerbait. Orduan esaten nuen, benga, bollo-saioa, goazen armairutik ateratzera.

Hori aldatu egin da orain.

Askok. Orain goaz txapelketa normale-tara eta gure hasierako edo bukaerako agurretan beti agertzen da bollera edo kuir edo transfeminista. Saioaren txapela niretzat mugarri izan zen zentzu horretan, eta bere bukaerako agurra ere bai: “Ez-bitarrak, kuirrak, transak, marikak eta bollerak”. Bat-batean horiek denak txapeldun baten agurrean entzutea... Ez dut esaten Saioak hasi duenik hori, baina niretzat pieza klabea izan da hori dena oso argi esaten, oso ausarta.

Hurrengo mugarria Señora Sariketa litzateke. Hor bazeuden zenbait behar eta hausnarketa: lehia zalantzan jartzea, genealogia egitea, aitortza egitea aurrekoei, espazioa sortzea bertsolaritza utzita zeukatenentzat, genero-disidentziak txertatzea...

Horretaz aparte, belaunaldiartekotasuna uste dut inportantea izan dela, eta antolakuntzan sartzea bertsolaria ez den jendea ere, bat-batean hor sare bat sortzea ez dena bakarrik bertsolariena. Gero epaile-irizpideetan sekulako lana hartu zuten Oihana Arana, Maidar Alday, Larraitx [Trojaola] eta Estitxuk [Agirre]. Irizpide berri batzuk sartzeak berekin dakar lehia beste modu batera ulertzea.

Horrek denak nolako eragina izan du bertsolaritza tradizionalan?

Alde handia dago duela bost urteko Gipuzkoako Txapelketatik aurtengora.

Oraingoa dela bost urte ni nengoen bertsoarekiko fase pasota batean. Bolada batez Ondarroan egon nintzen bizitzeko gainera: Gipuzkoako bertso-txapelketa, eta ni Ondarroan, imajinatu zer zentzu zeukan horrek. Ez nengoen oso bertso-tara garai horretan, eta aldi berean ez neukan orain daukagun sarea. Orain, adibidez, asteartero batzen gara Hernanin sei-zazpi tipa bertso-eskola egitera: bollerak gara kasik denak, transfeministak, aldi berean oso diferenteak elkarren artean, eta goaz igual bi-hiru urte astero-astero biltzen. Hor kristoren oinarria dago bertsoarekin motibatzen.

Bestalde, bertso-mundua gauza batzuetan hezi egin dela iruditzen zait. Orain dela bost urte jendeak ez dut uste zekienik kuir zer den, eta orain ez dakit badakiten zer den, baina entzunda daukate behintzat. Badakite zertaz gabiltzan gutxi gorabehera, uste dut hor leku bat topatu dugula.

Sortu duzue.

Bai. Orduan aurtengo txapelketa bizi dut oso kolektiboki, eta bizi dut lehiara goazela; ez ni Maidar Arregi moduan lehiaztera noala, baina ni eta nire taldea serio goaz, ez goaz paseoan. Lehian ez dugu sinesten, baina apuntatzen bagara, indarra nahi dugu egin horretan, nahi dugu erakutsi badakigula bertsotan, gure zirkuituetan ere bertsotan egiten dugula, ez dela gizonen bertsotan egiten dutela eta guk politika, eurek bertsotan eta guk parafernalia. Guk parafernalia eta politika bai, baina bertsotan egiten dugu.



Infernuan gaude. Donostiako auzo okupatu bat da.

Irailean bederatzirte izango dira okupatu genuela. Hasieran ikasle-talde bat ginen, denok zuriak, filosofia eta antropologia fakultateetakoak ia denak, eta hasieran okupatu genuen hortik, Donostian alokairuak ezinezkoak direlako etab. Aldi berean gezurra da, gure ia familia denek posible zuten alokairua permititu, ez ginen bereziki profil pobrea, baina proiektu politikoan hasieratik zegoen Donostiako gentrifikazioari eta turismoaren proiektuari kontra egiteko nahia, eta aldi berean etxebizitzaren auzi horri alternatibaren bat ematekoa. Baita komunitatean eta kolektiboan bizitzeko sekulako gogoia ere. Alokairuko etxe batean bizi zara zu eta bizpahiru lagun asko jota, eta hemen bloke osoak daude antolatuta, auzo oso bat dago koordinatuta.

Beste profil bateko jendea ere bizi da hemen.

Guk okupatzen dugun eraikinaz gainera, hemen atzean fabrika bat zegoen, 2021ean desalojatu zutena, eta hor mutil gazte asko bizi ziren, Marokotik etorritakoak, Aljeriatik; Nigeria, Ghana, Senegal, Ginea... Leku pila bateko jende pila bat Europara etorrita espektatiba batzuekin, baina gero European pasatzen da ez direla betetzen espektatiba horiek. Gehienak egoera irregularrean zeuden, asko kale-egoeran egondakoak ziren, enteratzen ziren hemen baze-goela leku bat okupa, eta jende asko etortzen zen fabrikara.

Harremana egiten hasi ginen eurekin, batez ere, jazarpen polizialari elkarrekin aurre egiteko. Gure eraikinetan ere espazio gehiago zegoen hutsik, orduan fabrikako jende bat hasi zen hona etortzen, eta hor hasi ginen auzo-proiektua

handitzen eta aldi berean konturatzen ere bai, nahiz eta zuriak izan, nahiz eta kontraesan asko eduki eta arrazistak izan inkontzienteki, ba antiarrazismoan militatu egin behar dela, inplikatu egin behar gara moduren batean, sozializatu behar direla pribilegio judizialak, sozialak eta abar. Auzo-proiektua apur bat norabide horretan garatu dugu, aliantza horretan oinarrituta, bereziki orain dela lau urtetik.

Poliziarren aldetik jazarpen handia jaso du auzoak. Adibide bat jartzearen, iaz ez zinen iritsi Bolloagedako bertso-saiora auzoa itxi zutelako ertzainek [Bolloageda egitasmoa Donostiako Asanblada Transmaribolloak antolatzen du, Santa Ageda egunaren bueltan].

Gure auzoko bat eskizofrenikoa da, eta brote bat eduki zuen gasolindegian eta

**apurtu hormie,
astinddu
zisheteronormie!**

Ekainak 28
Sexu Askapenaren
Nazioarteko Eguna
2024

Aulestiko Udala

ez dakit oso ondo zeinek, gasolindegiko batek edo kaletik zihoan norbaitek, baten batek deitu zion Poliziari esanez gizon arriskutsu bat zegoela kalean, laban batekin. Nik ez nuen ikusi labanik, baina tira. Etorri ziren ertzainak, hustu zuten auzo dena, itxi zuten auzo dena perimetralki, hesiekin eta ez dakit zer. Nire urtebetetzea zen hurrengo egunean, eta nik bizkotxoak nituen labean... Bera esaten irten egin behar nuela etxetik eta nik ez nuela gura, bizkotxo neukala labean. Beldurra berak ematen zidan, ez bizilagunak. Holako anekdotak asko pasatzen dira eta hori ikusten duzu arrazismoa. Nik ez dakit gizon zuri batek brote eskizofrenikoa edukiko balu kalean ea horrelako parafernalia montatuko zuen Poliziak. Beste adibide bat. Auzoko batzuk behin eta berriz katxeatzen dituzte ea marihuanarik daukaten; ez dakit jende zuriari hori egiten dioten, eta marihuana denok erretzen dugu. Baina komunitate moduan badaukagu nolabaiteko elkar zaintza jazarpen polizialaren aurrean, eta beste kontu batzuetan ere bai.

2021eko desalojoaz galdetu nahi nizuke.

Desalojo ilegala izan zen. Ez zuten abisatu, ez zuten epaiketak egin: etorri ziren eta fabrika hustu zuten, eta bi asetatara bota egin zuten, eta ez dakigu oso ondo baimenak zeuzkaten ala ez. Eta hori izan zen momentu oso gogorra; auzoko asko kalean geratu ziren. Harrera Sarearekin eta Sos Arrazakeriarekin koordinatu ginen saiatzeko jende guztiak etxeren bat lortzea. Hor okupazio-sarea inportantea izan zen jendeak beste etxeren bat topatzeko, ze instituzioek badaukate baliabideak baina ez dituzte martxan jartzen.

Aldi berean indar handia hartu genuen eta askotan holako momentu gogorretan aliantzak sortzen dira. Manifik egin genituen. Ordura arte igual ez zen oso ezaguna Infernua eta hori jendeak ikusi zuen hemen badagoela proiektu politiko bat.

Ekainak 28aren bueltako ekitaldi batzuk hemen egin izan dira.

Hori ere mugari moduan jarriko nuke. Hemen egin izan ditugu kontzertuak...

Anarik jo zuen, ezta?

Lehenengo gauza egin zena bertso-saio bat izan zen. Hori ere armairutik ateratzea bezala izan zen. Gauza bat da jendeak jakitea hemen proiektu bat dagoela eta gero beste gauza bat da auzoa erakustea datorren edonori...

Niretzat Anariren kontzertua izugarria izan zen, bat-batean hau bete-beteta, jende transfeminista pila bat... Hori Infernutik antolatu genuen, dirua ateratzeko. Horren aurretik pres-taketa-lan handia dago, auzokideak urduri egoten gara bi aste lehenagotik, hau dena txukuntzen: barra muntatu, oholtza inprobisatu... Oso momentu politak izan dira hori eta Asanblada transmaribolotik hemen antolatutako ekintzak.

Izan ere, Donostiako Asanblada transmaribolloko kidea zara.

Han ere urte pila bat goaz militatzen, eta ondo. Askok gustatzen zait asanblada hori. Nahiko praktikoa da, aldi be-

rean politikoki oso kokatuta gaude, eta argi daukagu zeintzuk diren Donostian transmaribollo moduan egin behar diren borrokek. Gehienbat antolatzen ditugu Donostiako transfeministak elkartuko diren egitarauak. Agian ez gara borroka instituzional batzuetan ibili, baina uste dut betetzen dugula funtzio bat aglutinatzea Donostian momentu honetan badagoen indar transfeminista eta horri norabide politiko ematekoa. Ez da asanblada handia eta ez da maila nazionalen antolatzen, baina uste dut inportantea dela existitzea.

“Bertso-mundua gauza batzuetan hezi egin da. Orain bost urte jendeak ez dut uste zekienik kuir zer den, eta orain ez dakit badakiten, baina entzunda daukate behintzat”

Aurten, ekainaren 28ko manifestazioaren leloa “Transfeministak Palestinarekin!” izango da, zuzenean.

Bai. Genozidioa dabil pasatzen, eta uste dugu inportantea dela momentu honetan indarrak horra bideratzea. Gainera, harrotasunaren eguna despolitizatu egin da asko instituzioetatik, banderak jartzen dituzte Kursalean eta udal-txean, eta gu ez gaude borroka mota horretan, ez gaude ikusgarritasunaren alde bakarrik. Borroka transmaribolloa ulertzen dugu beste borrokekin lotutako borroka gisa: ez bagaude opresio guztien kontra ez digu balio borroka transmaribolloak, eta momentu honetan Palestinan gertatzen dabilena salatu egin behar da. Gainera, Israelek erabiltzen du *pinkwashing*-a bere burua zuritzeko, beraz, klabea da transmaribollo bezala Palestinaren alde kokatzea. ●

ekainak 28



Sexu askapenerako nazioarteko eguna





Europar Batasuna norabiderik gabe

Amaitu berriak ditugu Europar Batasuneko Legebiltzarrerako hauteskundeak eta ezer gutxi jakin dugu hautagaiek datozen bost urteetarako dituzten asmoei buruz, gauza orokorrak ez badira. Izan ere, esan digute eskuin muturra datorrela, eta egia da, baina horrezaz gain, oso gutxi, kasu batzuetan *Hola* bezalako astekariak irakurtzen ari ginela baitzirudien: presidentearen emazteak ez dakit nor entxufatu zuen, hurbileko enpresari esleitu ziola obra publiko bat...

Hauteskunde emaitzak ikusi ondoren, badirudi Ursula Von der Leyen, Alemaniako Defentsa ministro ohia, batzordeburu izango dela. Bere alderdiari botoa emandakoek badakite andere horrek EBko kideen defentsa gastuak bikoiztuko dituela eta, ondorioz, gastu sozialak murriztu; zergak, batik bat zerga zuzenak, ez dituzte igoko, jaisten ez badiuzte. Halere, zaila izango du europar eliteak gure gazteria soldaduskara eramatea, populazioa zaharkituta egoteaz gain, heroia izateko gogo eskasa baitago geure gizartean. Frantziako Estatuan, lehendakariaren porrotak zerikusirik izan du, akaso, Macronek derrigorrezko soldaduska ezartzearen alde hitz egitearekin.

Garbi dago EBk eskumara egingo duela eta enpresariak, batik bat oligopolio handiek (Iberdrola), lasai egoteko arrazoiak badituztela. Izan ere, sozialdemokrazia ahula, ohiko eskuina eta eskuin muturra inoiz ez dira joango enpresa

EBk estatu federala izatetik urrun jarraituko du eta elkar kanbiorako eremu gisa garatzen joango da, baina barne merkatua babestuta, batik bat Txinako ondasunek ez dezaten lehiatu gure ondasunen prezioekin

erraldioen interesen aurka. Beraz, ez dituzte gehiago zergapetuko, alderantziz ez bada. Gainera, barne paradisu fiskalak, Luxenburgoko, Irlandako, Herbehereak... ez dira auzitan jarriko.

Euroaren etorkizuna ziurtatuta dagoela esango nuke, eta 2008an hasitako finantza krisitik bizirik irten ostean, zaila ikusten dut berriro errepikatzea. Bestalde, aipatu behar da euroa indarrean sartu aurretik, Maastrichteko Itunak ezarritako baldintza gogorrek eta aipatu krisiari aurre egiteko aparteko neurriak, Europako ongizate soziala asko endekatu zutela. Hots, euroaren jaiotza eta ondorengo krisia gizarte xumeak ordaindu ditu, eta egoera hori pobrezia datuek egiaztatzen digute, txiro eta aberatsenen arteko arrakala ekonomikoa erabat zabaldu baita eta jarraitzen du hedatzen.



**BALEREN BAKAIKOA
AZURMENDI**
EKONOMIALARIA

Esango nuke europar gizarteak barneratu duela euroa, eta eskuin muturra ere eroso sentitzen dela moneta horrekin.

Hauteskunde kanpaina honetan ere ez dugu jakin zer gertatuko den EBren aurrekontuarekin. Izan ere, EB estatu federal gisa ulertzen dute norbaitzuek, baina nahiko urruti dagoela esango nuke alderatzen badugu geure erreferentziarekin, AEBekin. EBren aurrekontua bere BPGren %1,24 da, AEBena, berriz, %20 ingurukoa. Gainera, finantza iturri autonomoak urriak dira eta konpentsatzeko estatu kideen ekarpenak nabariak; beraz, finantza autonomia eskasa.


Etorkinen arazoan ere EBn zer gertatuko den ez da argi geratu. Dakiguna da "gaztelu" itxi baten moduan funtzionatzen jarraituko dugula, estatu kide bakoitzak berea eginez. Halaber, europarroi ahoa betetzen zaigu giza eskubideak betetzen ez direlako Txinan, Errusian edo Iranen, baina guk edo gure aldekoek hankapetik pasatzen ditugunean esku-bide horiek, bestaldera begiratzen dugu. Eta hori egiten ari gara etorkinekin. Etorkin horien jaioterriak esplotatu ditugu, txirotu, eta guregana datozenean, itsaso zabalean abandonatzen ditugu.

Azken finean, EBk estatu federala izatetik urrun jarraituko du eta elkar kanbiorako eremu gisa garatzen joango da, baina barne merkatua babestuta, batik bat Txinako ondasunek ez dezaten lehiatu gure ondasunen prezioekin. Hara zertarako balio duen Mundu Merkataritzarako Erakundeak! ●

Metaketa



NEREA IBARZABAL SALEGI
BERTSOLARIA



PAULA ESTÉVEZ

Lehenagoan mezu bat idatzi nion METAri. Di-da, pentsatu eta egin. Mark Zuckerbergak ez du lorik egin orduetik, ez baitzen edozelako mezua izan, lehor samar idatzi nion. *Borde*, ia. Instagrameko bideo baten bidez jakin nuen METAk bere erabiltzaileek partekatutako informazioa “Adimen Artifizial Sortzailea” entrenatzeko erabiliko duela aurrerantzean. Profiletako bilioika irudi eta testu irakurraraziko dizkio (diotenez, mezu pribatuak ez; lastima, egiazkotasun apurra hortxe egon zitekeen), eta sistemak haien arteko asoziazioak ikasiko ditu, gerora berak sortu ahal izateko.

Adibidez, ikasiko du hondartzara joaten diren gizakiengan ohikoa dela toallan etzan eta norbere izter distiratsuen argazki bat egitea, atzean paisaia ageri dela, eta *bakea*, *paradisua* edo *oporrak* hitzekin lotu ohi dutela une hori. Ikasiko du erakusten dituzten hankak eta gainerako gorputz atalak molde jakin batekoak izaten direla, eta interakzioak nabarmen ugaritzen direla azala bistan dagoen argazkietan. Ikasiko du *bakea* hitza mokoan adaxka bat daraman txori zuri batekin ere lotzen duela jendeak, eta zenbait herrialderen banderekin ere bai, bandera urdinak, horiak, beltzak, gorriak, berdeak, zuriak, izardunak, ilar-

gidunak, erabiltzailearen nitxo ideologiakoaren arabera. Euskara ere ikasiko du agian, erdipurdi.

Kontua da nik ez nuela nahi “adimen sortzaile” horrek hainbeste gauza ikasterik, ez nire argazkiei begira, behintzat. Nahikoa sufritzen dut nire adimen analogikoak gutxi edo eskas sortzen duela sentitzen dudanean, gainera ni baino efikazagoa izan daitekeen bizkarroi bat elikatzeko.

Ausaz agertu zitzaidan bideo horrek METAren sarekada horretan zelan ez erori kontaktzen zuen. Instagramen ezarpenetan sartu eta pribatutasuneko atalean mezu bat bidaltzeko aukera dago.

Honelako zerbait bidali nion Mark Zuckerbergi, ez emotikono, ez bigunkeria, txarto zaindu duzun maitaleak bere jertsea zein tabernatan utzi behar diozun esanez idazten dizunean bezala, kafe baterako zirrikiturik gabe:

“*Kaixo* (Ez, uste dut ez nuela agurtu ere egin).

Ez dut nire informazioarekin Adimen Artifiziala elikatzeko baimenik ematen, ez orain, ezta etorkizunean ere. Neurri horrek ez du nire intimitatea errespetatzen, eta nire pribatutasunerako eskubidea urratzen du”.

Jo eta ma utzi nuen Mark. Ez zidan gauso osan erantzun, gizajoak. Egia esan,

ez nekien norberak erakutsitako irudien “pribatutasunerako eskubiderik” existitzen ote zen ere, gogor plantak egitearren idatzi nuen horrelako ziurtasunez, abokatua naizela pentsa zezan, beldurtu zedin apurtxo bat.

Ez neukan fede handirik; sinetsita nengoen sorrerako termino eta baldintzak onartzerakoan arima ere saldu egin nuela erantzungo zidatela, eta orain nire aurpegia Japoniako xaboi fabrika bateko logotipoa dela, Homer Simpsonen estiloan, edo Bruce Willis gertatu bezalaxe, telefono konpainia errusiar bat iragarzteko erabiliko nindutela.

Baina, Markek gaua negarrez eman-go zuen niri nola erantzun pentsatzen, biharamun goizerako mezu hau topatu bainuen emailean:

“Zure eskaera aztertu dugu, eta onartzen dugu zure kontraktotasuna. Horrek esan nahi du aurrerantzean zure eskaria beteko dugula”.

Harrigarria, ezta? Horren erraz! David Goliath mendera dezake, bai horixe. Zer esaten ari nintzen jakin ez, eta arrazoa izan. Benetako abokatua ote naiz, ba? Bai tipo abegikorra, Mark. Orain la-saiago geratzen naiz, hau bai zerbitzua, beste ordu bi emango ditut bideo motzak ikusten, ea burujabetza digitalerako beste aholkurik agertzen zaidan. ●

Bizitzaren legeak



JOSE IGNAZIO
ANSORENA
TXISTULARIA

Etorkizun laburrekoak kezkatuago gaude etorkizunarekin etorkizun luze-koak baino. Bizitzaren CCCLXIX. legea da. Aho-korapiloa ematen du, bizitzaren legeak, ordea, ez ditut nik idazten, bizitzak berak baizik.

Lege horrek, taxuzko lege guztien antzera, salbuespenak baditu, baina zein salbuespen diren salbuespen, etorkizunak argituko du. Bitartean ez dago jakite-rik. Lehen mailako axioma hori argiturik, hauxe da orain etorkizun laburreko honen kezka nagusia: noiz eta nolako dikta-dura datorkigun.

Etorriko denik ez da dudarik. Soilik noiz eta nola dago ikusgai. Agian iritsi da dagoeneko eta gu konturatu ez. Silogismoa simplea da: 1. Mendebalde aberatsa inertzia eroan dabil Naturak mugarik ez balu bezala, ebidentzia zientifiko guztien aurka; 2. Inertzia da Unibertsoko indarrik boteretsuena eta hari balazta egiteko trikimaina eta sermoi epelek ez dute eraginik; 3. Ergo... txintik esaten eta egiten utziko ez duen inor edo zerbait helduko da ilusiozko hego txatxuak moztera.

Ziur aski, hego-moztaileak oraingo erokeria bultzatu duten berberak izango dira, aurpegia emanda edo erakutsi gabe. Hori ere bizitzaren beste lege bat da: *Oinezkoak beti oinez, zaldizkoak zaldi gainen.* CCVII.

Kezka ez da negatik, etorkizun laburreko bainaiz, seme-alaba eta bilobengatik

baizik. Baina zer egingo zaio, bizitzaren DXXXIV. legeak argi dio: *Libratu aurretik, ez garbitu atzekorik.*


Bizitzaren beste legea, II.a uste dut: *Ez baduzu liskarretan sartu nahi, ez ezer egin.* Arrazoizkoa. Ez baduzu ezer egin, ez zara liskarretan sartuko. Liskarrak sartuko dira zugan.

Bizitzaren CXXIV. legea: *Jendeak zuri jarraitzea nahi baduzu, aurretik joan zaitetz.* Formulazio anbigua da horrek. Trenaren edo uholdearen aurrean kokatuta, eraman egingo zaituzte. Aurretik joan behar da, baina jendearen martxa berean, atzera begiratu etengabe eta utzi gabe haiek azkarrago ibiltzen, eta gelditzen badira, zeu ere kieto. Politikari gehienek martxa. Marrazki bizidunetarako ongi ematen du.

Bizitzako lege itxuran saltzen dizkigute beste batzuk: *Inorekin fidatuz gero, aterako zara bero, Txotxolokeriak ez du mugarik...* Horiek Bartoloren mailako printzipioak besterik ez dira. Gure ama Teresita zenak ongi ezagutzen zituen bizitzaren legeak: *Norberaren gorai-puak, kaka seguruak.* Edo barruraino sartu zidan hau: *Bizitzan azkenekoa, izatea plomoa.*

Beste batean biziaren legeez jardungo naiz. Bizitzarenak baino interesgarriagoak dira eta. Bide batez, bizitzaren axioma nagusia zein den ez dut argitu: *Axioma guztiak faltsuak dira.* ●

Izendatzea



EVA PEREZ-PONS
ANDRADE

Sexu-langileen Nazioarteko Eguna-ren harira, sexu-langilea den kide batek estigma apurtzeko tailer bat eskaini zuen ekainaren 2an. Kideak oinarrizkoa den eta agian horregatik horren presente ez dugun auzi bati heldu zion: gauza bat dela zerbait baimenik gabe egin diezazuten eta beste gauza bat zerbait desirarik gabe egitea; lehena eraso dela eta trauma sor dezakeela, eta bigarrenak, eraso ez izateagatik, ez.

Apurtzeaz zegoen zerbait hautsi zitzaidan barruan nire burua lehenengo egoera horretan ikustean, gertatutakoari izena jartzeko ausardiarik gabe, lotsaz eta utzi didan aztarna zelarik

deatu jakin gabe. Gure gune eta harreman transmaribibolloetan ere ematen direlako erasoak eta biolentziak. Erreparazioa zelarik egiten dugun, desidealizatu dut erabat.

Izendatzean egoeraren gaineko kontzientzia hartzen dugu, mingarria da eta beldurra ematen du, baina erreparazioa eta gertatu denaren mailako dolua egitea ahalbidetzen digu. Garrantzitsua da, doluan desegiten eta egiten garelako. Eta berriro ere eskerrak eman sexu-langileei, denoi eragiten diguten gai deserosoak mahai gainean jartzeagatik. Zuen borrokak denok ahalduntzen gaitu. ●

Gustua nirea da



BEÑAT MUGURUZA
ASEGINOLAZA
IRAKASLEA ETA
IKERTZAILEA

Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio omen du. Pascual Serrano kazetari eta idazleari irakurri nion ez dagoela hori baino gezur handiagorik. Duela hamar urte pasa idatzi zuen hori, irudiak berba osorik jan behar zuela ikusten hasiak ginenean. Tira, gezurtatu daitezkeela esaera zaharrak, alegia.

Beste bat: gustue ez dago ezer idatzita. Ez dakit esaera asmatu zutenean hala ote zen, baina gaur egun ezin halakorik esan. Esaterako, nahiko hedatuta dago gustuak –neurri batean, behintzat– eraikuntza soziala direlako ustea, eta azkenaldi luzean horri buruz asko idatzi da, idazten da. Beraz, genero, arraza edo klaseagatik baztertu edo egokitzen ditugun bezala hitzak, esaerak eta esamoldeak, ezin al genuke gauza bera egin horiekin, besterik gabe, egia izateari utzi diotelako? Edo saihestu, behintzat.

Gustuei berriz helduz, eta zehazki gustu musikalei, eraikuntza soziala deseraikitze proposamen bat idatzita ez baina esanda utzi zuen Iñaki Segurola zenak bere ondare oparoan: kanta bat, musikari bat, disko bat entzun, bakarrik zaudela, eta zer esaten dizu? Gustatu

Euskarazko edo gaztelaniazko taldeak entzutean badakit horiek entzutea 'tokatzen' zaidan. Gizajoa ni: ezin jakin Stromae entzutearen plazera 'guilty' edo 'innocent' den ere

zaizu? Ba kitto, horraino. Bestela, harago joaten hasten baldin bagara, arriskua. Ez dut uste hala denik, eta jokaldi arriskuetsua iruditzen zait gainera, baina zerbait esaten dit, uste dut ulertzen dudala.

Hizkuntza Eskolako frantseseko azterketara begira, belarria pixka bat egiteko-edo, frantsesez abestutako musika

entzuten aritu naiz, besteak beste. Irakasleak klasean jarritakotik tiraka, segur aski bestela entzungo ez nituzkeen bi artista entzun ditut batez ere. Hiper famatuak, erabat *mainstream*-ak, estadio-betetzailerak; hip-hopa eta musika elektronikoa egiten dute, dosi desberdinetan.

Tira, behin honaino iritsita, aitormena: Bigflo & Oli bata, Stromae bestea. Entzun ditut, hasieran frantsesa praktikatzeko aitzakiarekin, baina oso gustura ere bai, azkenerako. Eta kezka bat dabilkit buruan: bat ote datoz nik entzun beharko nukeenarekin, ni naizenarekin? Gustatu *behar* zaizkit? Zer jendeak entzuten du hau? Nire ingurukoek bai? Nire estiloko frantses-hiztunek zer iritzi dute talde horiei buruz? Ez dut erreferentziarik. Euskarazko edo gaztelaniazko taldeak entzutean badakit gutxi-asko horiek entzutea *tokatzen* zaidan.

Tokatu esan dut? Gizajoa ni: ezin jakin Bigflo & Oli eta Stromae entzutearen plazera *guilty* edo *innocent* den ere.

Kaskoak kendu, eta entzunaldien osteko galdera beti berbera da: nola heldu naiz ni kartzela honetaraino? ●



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK, OSPAKIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL • 943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com

HONDARTZA



GUZTIONA

**GOZATZEKO
PLAZERRA,**

DA



**ZAINTZEKO
BETEBEHARRA**



Kronika

Okzitaniako A69 autobidearen aurkako mobilizazioa: Borroka eredu berrien territorioa

A69 autobidearen aurkako mugimenduen topagune eta borroka gune izan da Okzitaniako Tolosa eta Castres hirien arteko lurraldea ekainaren 7tik 9ra. Dozenaka kolektiboren deiarri erantzunez, 6.000 lagun batu dira bertan eta Frantziako Estatuko Barne ministro Gérard Darmaninen debekuaren gainetik pasa dira. Sukar Horia kolektiboko kide batzuk egon dira

bertan, azken urteetan Frantziako Estatuan zabaldu den mugimendu ekologistaren borroka molde berriak ezagutzeko gogoekin. Zehazkiago, autobide baten aurkako borroka ezagutzea aberasgarria iruditzen zaielako, Bizkaiko aldundiak Ses-taotik Leioara eraiki nahi duen itsasadar azpiko tunelaren aurkako borrokari heldu beharraren testuinguruan.

 SUKAR HORIA

Krisi ekologiko betean, kapitalaren logikari jarraituz lurra suntsitzen duten proiektuak gelditzeko aldarria berretsi berri dute milaka herritarrek Okzitania. 6.000 lagun elkartu dira ekaineko lehen asteburuan Tolosa eta Castres hirien artean, bertatik iragaitekoa den A69 autobide proiektua oztopatzeko xedez. Lurraren Altxamenduak sareak, Confederation Paysanne laborarien sindikatuak, La Voie Est Libre (Bidea libre da) kolektiboak, Tolosako Extinction Rebellionek, A69ko ZAD gune autogestionatuak eta GNSA zuzaitzen babeserako taldeak luzatu zuten nazioartekoa ere izan nahi zuen deialdia.

Sei hilabetero dabil Lurraren Altxamenduak sarea ehunka lagunez osatutako asanbladetan ondoko urte erdirako ekintzak diseinatzen. A69aren aurkakoa zuten zazpigarren sasoiaren baitan ira-

garritakoa. Tokiko borrokek babestea eta momentu erabakigarrietan aurkitzen diren borrokei bultzada ematea dute helburu: "Obrak martxan jarri direlako, lurraldearen txikizioaren mehatxua berehalakoa delako eta mobilizatzeko molde jakin batzuk agortu ostean borroka molde ofentsiboak erabiltzeko beharra dagoelako". Helburu horiekin sortu zuten Lurraren Altxamenduak mugimendua 2021 urtean. Mugimendu anitz hori osatzen dute klima aktibistek, nekazariak, sindikalistek, talde autonomo antikapitalistek, borroka lokalekin konprometitutako militanteek, ZAD defendatu beharreko guneek eta okupatutako bestelako lurralde batzuek.

Frantziako Estatuko Barne ministro Gérard Darmaninek A69 autobidearen aurkako mobilizazioa debekatu zutela iragarri zuen hiru egun lehenago, Fran-

tziako Legebiltzarrean. Debekuaren aurrean, Lurraren Altxamenduak sareak mugimenduen kriminalizazioa salatu zuen, beste akusazio batzuen artean, kontrol polizial aleatorioetan autoetatik jendeari kendutako materiala "armatza" klasifikatu baitzuten. Material horiek, besteak beste, brikolajea egiteko erremintak, janaria mozteko labanak edo petankan jolasteko bolak ziren. Deialdiarekin aurrera jarraituko zutela irakurri zitekeen agirian, "alaia, umoretsua eta determinazioz betetako mobilizaziorako" deia berretsi zuten. Berehala, Confédération Paysanne eta GNSA taldeek helegitea jarri zuten Barne ministroaren erabakiaren aurka.

Puylaurens herrian kanpamentu bat muntatu zuten manifestariak aterpetzeko, proiektuaren aurka ari den laborari batek utzitako lurretan.

DUELA HOGEI URTE MARRAZTURIKO PROIEKTUA

Duela hogeit hamar urte baino gehiago jarri zen martxan Okzitaniako Castres eta Tolosa lotzeko A69 autobidearen proiektua. Proiektuaren bultzatzaile nagusia izan da hasieratik lekuko burgesia, Castres hiriko Pierre Fabre farmazeutika laborategia buru. 1962an sorturiko laborategia handituz joan zen, eta hasieratik zuen estrategikotzat laborategiak Tolosarekin eta bertatik Frantzia osoko autobide sarearekin lotzea. Berez, proiektuaren konfirmazioa Garraio ministroarekin eta Europako Garraio komisarioarekin izan zuen bazkari batean jaso zuen Pierre Fabrek, hil arte enpresaren burua izan zenak. Hainbat hautetsik *Reporterre* komunikabideari esandakoaren arabera, Frantziako presidente François Ho-

53 kilometroko autobide horrek milaka zuhaitz moztu eta 400 hektarea lur emankor artifizializatuko lituzke

llandekin bildu zen hil zen gau berean, proiektuaren garrantzia gogorarazteko.

Egun, Pierre Fabreraren tentakuluak eskualdearen bizitza sozialaren aspektu ia gutxietara ailegatzen dira: kirol

taldeak, komunikabideak, hautetsiak... Hautetsien eta Fabreraren arteko harremana oso ondo deskribatzen du autobidearen eraikuntzarako 500.000 euro eman dituen Sor et Agout herri elkargoko lehendakariorde Alain Veuilletek: "Pierre Fabre jaunak bere langile batzuk animatzen zituen udal politikan sartzerara [...]. Berak animatu ninduen ni [...] nire herriko zinegotzi bihurtzera. Denbora liberatzen zidan horretara dedikatzeke, eta enpresaren soldata kobratzen jarraitzen nuen".

Eskualdeko biztanle guztiak ordea ez daude proiektuaren alde, batez ere proiektuak eragingo lukeen kalte ekologikoagatik. 53 kilometroko autobide horrek milaka zuhaitz moztu eta 400 hektarea lur emankor artifizializatuko lituzke.





A69 CANAL INFO

Obrak oztopatzeko manifestazioaz gain, ekintza eta ekimen andana egon da asteburu osoan zehar.



La Voie est Libre taldeak autobidearen alternatiba izango litzatekeen proiektu bat landurik du: dagoeneko desjabetuta dauden lurra erabiliko litzuzke bizikletentzako eta autobusei espazioa emateaz gain, agroekologiaren aldeko apustu bat egiteko. Karim Lahiani paisajistak idatzitako proiektu horrek Trantsizio Ekologikoko ministerioaren saria jaso berri du. "Ez al da ironikoa autobidea bultzatzen dabilen gobernu berak honen alternatibari sari bat eman izana?", galdetzen du kolektiboko parte den Laurentek.

Orain arte, hainbat izan dira proiektua gelditzeko mobilizazioak: manifestazioak, gose grebak, oihanaren okupazioak eta bizikleta martxak besteren artean. Frantziako Estatuko beste hainbat lekutan bezala, ZAD defendatzeko gune askeak ere jarri dituzte martxan. Obra baten mehatxupean dauden inguruneak defendatzeko egiten diren okupazioak dira ZADak. Ezagunena 2010 urte inguruan Nantes inguruan aireportu proiektu baten aurka muntaturiko Notre-Dame-des-Landeskoa izan dela esan dezakegu. Urte luzeko borrokaren ostean, aireportu proiektua geldiaraztea lortu zuten 2018an eta oraindik aurrera segitzen du gune askeak.

A69aren kasuan ere osatu dituzte eta gaur egun martxan dagoen erresistentzia gune nagusia Crém'Arbre da. Bertan hainbat ekintzaile zuhaitzetako etxeetan bizi dira otsailetik, Poliziaren zein eskuin muturraren erasoei aurre eginez. Ekainaren 7tik 9ra arteko mobilizazioaren aurreko egunetan Poliziaren presentzia dezente handitu zen bertan, autobidearen eraikuntzarako ardura duen Atosca enpresaren ikerketa arkeologikoen aitzakiapean.

Azken urtean batu da Lurraren Altxamenduak A69 autobidearen aurkako borrokara eta ekaineko deialdia izan zen luzaturiko hirugarrena. Aurreko bi aldietan, mila lagun inguru batu ziren mobilizazioetara eta autobidearen lanen inguruak okupatzea lortu zuten.

KANPAMENTUA, BORROKAREN ZAINTZA GUNE

Tokiko eta inguruetatik etorritako laguntzaileen lanari esker, egun bakarrean altxatu zuten astebururako mobilizazio eta ekintzen epizentro izango zen Puylaurens herriko kanpalekua. Ostiralerako jada, milaka ekologista bertaratzen hasiak ziren, inguruetan jarritako hainbat kontrol polizial saihestu ostean. Bertara bidean, A69 autobiderako hasi-

tako lanak ikusi zitezkeen errepidetik. Lanen zonalde batean, obretako hondeamakina eta kamioi guztiak eremu batean pilatuta ikusi zitezkeen. Eremua, gau eta egun zaintzen zuten poliziek, armak eskuan. Kanpalekuaren sarreran, traktore batek lursaila asteburuko gertaerarako egokitzen zuten bitartean, militanteek auto etorri berriei aparkatzen laguntzen zieten.

Kontzertuak zein mahai-inguruak jasoko zituzten karpek, kolektibo ugariaren stand guneak, komunek, tabernak eta milaka lagunei jaten emateko gaitasuna zuen kantinak osatzen zuten kanpalekuaren gune nagusia. Horieta gain, mugimenduaren *base arrière* [atzeko parte] osatzen zuten talde desberdinen erreferentzia guneak aurki zitezkeen: medikuak, zapalkuntza sistemikoen – arrazismoa, sexismoa, queerfobia, kapazitismoa eta beste – aurkako taldea, laguntza psiko-emozionala emateko gunea eta laguntza juridikorako abokatuen taldea. Bakartzen eta individualizatzen duen errepresioaren aurrean, "zaintza-aren erantzun kolektiboa" antolatzea da antolakunde horren helburua. Martxoaren 25ean Lurraren Altxamenduak Sainte-Solinen antolatutako protestako *base arrière*-koek honela definitzen dute haien



A69 CANAL INFO



A69 CANAL INFO

jarduna, *On ne dissout pas un soulèvement* (Altxamendu bat ez da desagiten) liburu-ko pasarte batean: “Ez dizkiegu zaintzak erakunde espezializatuei esleitu nahi, gure borroketan zaintza-praktika kolektiboa eraiki nahi dugu. Errepresio egoe- ren bizitzeko modua bakarria da gutako bakoitzarentzat. Horrek gure bizipenak indibidualizatzen eta isolatzen eraman gaitzake. Hori dela eta, gure espazioetan, gure esperientzia indibidualak testuinguru politiko eta kolektibo batean kokatzeko aukera ematen digu zaintzaren transbertsalitateak”.

Haien identifikazioa ekiditeko, estalita zeuden autoen matrikulek eta kanpa-

lekuan aurpegia estalita zebiltzan kide batzuek gogora ekartzen zuten Lurraren Altxamenduak sarearen aurka hasitako kriminalizazio eta errepresio kanpaina. Mugimenduko kideek esaten duten bezala, “Lurraren Altxamenduak-ek hartu duen dimentsioa, eraikitako aliantzak, mobilizazioen zabaltasunak, jai giroko kanpamentuak, blokeoak, okupazioak eta desarmeak –azpiegitura toxikoen aurkako sabotajea jendetsuak izendatzeko erabilitako terminoa– direla eta, mugimendua botere industrial eta Estatuaren politiken aurkako mehatxu bilakatu da”. Ildo horretan, gogoratu behar da Poliziak manifestarien aurka erabil-

tzen duen bortizkeria, kideen atxilotak eta 2023an Frantziako Gobernuak mugimendua ilegalizatzeko egin zuen saiakera.

Ostiraleko egitarauari dagokionez, tailerrek, mahai-inguruek, ibilaldiek eta proiektioek osatu zituzten arratsaldea eta iluntzea. Egunari bukaera emateko, kontzertuek eta *Drag performance* batek alaitu zuten kanpalekua. Gauean oraindik, pixkanaka kanpalekura iristen zihoazenez kanpin-dendak muntatzen zituzten iluntasunean. Estatuako leku desberdinetatik iritsiak ziren milaka lagun, baita Kataluniatik, Italiatik, Sardiniatik eta Euskal Herritik ere.

Audio eta bideoen transkripzio eta azpigituluak

6 hizkuntza: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, katalana eta galegoa

aditu.eus

Automatikoki eta minutu gutxian Editatzeko eta itzultzeko aukera



aditu
elhuyar



MOBILIZAZIO EGUNA, ERREPRESIOARI AURRE EGINEZ

Larunbat goizerako, eguzkiak gogor berotzen zuen kanpalekua. Poliziaren helikopteroak goizetik zebiltzan lursailak zelatatzen. Aurreko gauean, goizaldeko 04:00 aldera, helikoptero batek parte-hartzaileak esnatu zituen, kanpalekutik gertu hegan eginez eta argi foku batekin kanpin dendak argiztatuz.

Errepresioa aurreikusirik, manifestazioetan polizien erasoei aurre egiteko tailer bat eskaini zuten kanpalekua-
ren izkina batean. Afinitate taldeetan antolatuta, Poliziak jaurtitako granada gas negar-eragile eta GM2L granaden aurrean babesten jakiteko oinarritzko entrenamendua izan zen. Errepresioaren mamua oso presente dago Lurraren Altxamenduak sareko kideen artean. Sainte-Soline hirian Poliziak indarkeria basatiz egindako erasoaren bizipenak ahaztezinak bilakatu dira mugimenduan. 2023ko martxoaren 25 hartan, ura agroindustriarako pribatizatzen duten uraska handien aurka antolatu zuen manifestazioa Lurraren Altxamenduak-ek Sainte-Solinen. 30.000 laguneko manifestazio jendetsu haren aurka 5.000 granada jaurti zituen Poliziak. 200 zauritu eragin zituzten, horien artean 40 larriki eta bi bizia eta heriotzaren artean utzi zituen. Gertakari horien ostean, martxoaren 28an, Darmanin Barne ministroak Lurraren Altxamenduak "ekoterrorista" izendatu eta mugimendua legez kanpo utziko zuela iragarri zuen. Ekainaren 21ean mugimenduaren desegitea dekretatu zuen. Kideen aurkako atxiloketak etorri ziren gero –baita Lurraren Altxamenduak sarearen aldeko elkartasun uholdea ere-. Azkenean, debekua atzera bota zuen Estatu Kontseiluak 2023ko azaroaren 9an. Hala ere, esan bezala, Estatu aparatuek mugimendua kriminalizatzen, mobilizazioak Poliziaren indarkeriaz jazartzen eta deialdiak ilegalizatzen jarraitzen dute. Horren froga berria izan zen ekainaren lehen asteburuko mobilizazioan bideratu errepresioa.

Antolatutako tailerretatik kanpo ere, granadetatik babesteko aholkuak komentatzen eta birpasatzen ziren parte-hartzaileen artean, akanpalekuan barna. Azalpen horietako batean, "ezagutzen nuen orain dela hamar urte hemendik gertu hil zuten Rémi Fraisse" bota zuen kide batek. 21 urteko militante ekologista hura, Sivenseko urtegiaren eraikuntzaren aurkako 2014ko urriaren 26ko mobilizazioan hil zuten,



Errepresio gogorrari aurre egin behar dio Lurraren Altxamenduak sareak. 40 ekintzaile zauritu zituen Poliziak A69 autobidearen aurkako mobilizazioan.

"Inoiz baino gehiago ikasi behar dugu elkarrekin polizia indarkeriatik babesten eta berrasmatu behar ditugu proiektu ekozidak geldituko dituzten erresistentziak"

poliziak gertutik botatako ofentsibarako granada baten leherketarekin. Gertakari lazgarri horren ostean, manifestazioetan granada mota horien erabilpena debekatu zuen Frantziako Estatuak.

Eguerdian, prentsaurrekoa eskaini zuten mobilizazioen antolatzaileek. Filmatzea eta argazkiak ateratzea debekatuta zegoen kanpalekuan: mobilizatutako segurtasuna bermatzeko helburuz, kanpalekura sarturiko kaze-tariak antolakuntzako norbaiten onsenparekin hartzen zituzten irudiak. Mugimendua kriminalizatzen duten

komunikabideen eta militante ekologisten arteko tentsioa nabaria zen egun haietan. Asteburuko mobilizazioen "trataera mediatiko lotsagarria" salatu zuen Lurraren Altxamenduak, agiri bidez ekainaren 7an. CNEWS, *Le Figaro*, Europe 1 edo *La Dépêche* bezalako komunikabideak Darmanin Barne ministroaren, Tarneko prefekturaren eta inteligentzia zerbitzuen "gezur eta manipulazioak zabaltzen zebiltzala" salatu zuten. Komunikatuan erreferentzia egiten zioten mugimendu ekologistak argitaratutako *Premières secousses* (Lehen inarrosaldiak) liburuan landutako "espektakulura bideratutako biolentzia" kontzeptuari ere. Horrekin, komunikabideek mugimenduz egindako trataera azaltzen dute, etengabe mugimendua irudi biolentoeekin lotuz.

BLOKEKA ANTOLATURIK

14:30ak aldera abiatu zen manifestazioa, lau bloketan banatuta, bakoitza kolore batekin izendatua. Lehenengoa, bloke horia, nekazari eta ZAD-eko biztanleek osatu zuten. Bigarrena, bloke arrosa, queer feministek gidatutako talde alai eta aldarrikatzailea. Hirugarrena, bloke berdea, bloke urdinak ekintzak burutu ahal izateko Poliziaren atentzioa deitzen ariko ziren, eta azkenik, bloke urdina, beltzez jantzi-

ta desarmatze ekintzak egitea helburu zuen talde prestatua. Tekno musikaren burrunba entzuten zen blokeak osatu bitartean. Dena prest zela, bloke bakoitzak bere bidea hartu zuen, "À bas l'état policier" (Estatu polizialaren bukaera) eta "No macadam" (*No pasarán* eta *macadam* hitzaren arteko hitz-jokoa) zioten oihuka. Bloke horikoek atoi bat jarri zuten bidearen erdian, konboi blindatu bat bertatik igarotzea ekiditeko eta gainerako manifestariak babesteko asmoz. Gainerako blokeak, bakoitzak bere bide-tik, baso eta landetan zehar abiatu ziren. Herritar batzuek manifestariei agur egin eta ura eskaintzen zieten.

Ordu batzuen ostean, bloke arrosa, berdea eta urdina Appelle herriaren inguruetan batu ziren. Inguru horietan burutu behar zen A60 autobidearen aurkako desarmatze ekintza. Poliziak ordea, azkar hartu zuen lekua erasoan bitartez eta ekintzaren helburuak ezin izan ziren gauzatu. Momentu horretan, polizien eta manifestarien arteko enfrentamenduak izan ziren herri ondoko gari soroetan. Antolatzaileen arabera, 40 manifestari zauritu zituzten GM2L granadekin eta horrietatik hiruk, ospitalera joan behar izan zuten. Poliziak behin baino gehiagotan blokeatu zituen zaurituak zeramatzen autoak. Antolatzaileek salatu dutenez, kanpalekura zihoan anbulantzia bat ordu bat baino gehiagoz blokeatu zuen Poliziak. Tarneko prefekturaren arabera, bi polizia zauritu eta hiru ibilgailu polizial hondatu zituzten.

Manifestazioa bukatutzat eman zenean, kanpalekurako bidea hartu zuten manifestariak. Babes gunera iritsita jada, sentsazio gazi-goza nabari zitekeen par-

"Ez dizkiegu zaintzak erakunde espezializatuei esleitu nahi, gure borroketan zaintza-praktika kolektiboa eraiki nahi dugu"

te-hartzaileen artean. Batetik poza, manifestazioa legez kanpokoa izanda eta aurreko egunetan masa komunikabideek zabaldu zuten errepresioaren beldurra gaintituta 6.000 manifestari elkartu zirelako. Bestetik, frustrazioa, komunikabideek zabalduko errepresioaren beldur horrek ondorioak izan zituelako eta esperotakoa baino jende gutxiago bildu zirelako.

Beste behin ere, manifestazio ekologista baten aurka Poliziak erabilitako indarkeria salatu zuen Lurraren Altxamenduak-ek, manifestazioa bukatu bezain laster. GM2L granadak gerrarako armak direla azpimarratu zuen sareak, Frantziako Estatuak erabiltzen duen indarkeria polizialari dagokionez Nazio Batuen Erakundeke errelatore berezi Michel Forsten hitzak gogoraraziz: "Europako herrialdeen artean, Frantziak erakusten du ingurumen aktibisten aurkako errepresio polizialik handiena. Poliziaren biolentzia

beste mundu batekoa da. Atzerriko bere homologoek ez dute ulertzen frantsesek nola erantzuten duten manifestazioen aurrean, ez dute ulertzen horrenbeste biolentzia erabil daitekeenik".

Berriz ere, kontzertuekin jai giroa nagusitu zen larunbat gauean kanpalekuan. Batzuk festa giroan murgildu ziren, beste batzuk deskantsu hartu zuten. Hurrengo egunerako ere egitarau oparoa zegoen prestatuta: mahai inguruak, formakuntzak, ikusgarriak, ZADera bizikleta mar-txa eta Lurraren Altxamenduak sarearen tokiko komiteen asanbladak. Kanpalekuan bazegoen ZADekoak laguntzera joateko gogoak: "ZADa askatzera joan behar gara asteburu honetan, Polizia bertatik bota behar dugu", ohartarazi zuen ekin-tzaile batek.

Asteburuko mobilizazio guztien ostean, antolatzaileek A69 autobidearen eta horrek irudikatzen duen munduaren aurkako borrokekin jarraitzeko garrantzia azpimarratu zuten: "Inoiz baino gehiago ikasi behar dugu elkarrekin Poliziaren indarkeriatik babesten, eta etengabe berrasmatu behar ditugu proiektu ekozidak geldituko dituzten erresistentzia moduak".

Egun horietan topaleku, babesleku eta erresistentzia gune izandako kanpalekua desegin zuten ondoko egunetan. Protesta asteburua bukatu zen, baina A69 autobidearen aurkako borroka bultzada eta indar berriekin atera zen ekaineko lehen asteburutik. Hortik harago, Sukar Horia taldetik, espero dugu lurren, gure bizi-ingurune eta harremanen arpilatze kapitalista gelditzeko helburuarekin sorturiko altxamendu horrek garaipenez betetako etorkizuna izatea. ●



"Desarmatze ekintzak" bideratzeko asmoz datorren jende prestatua ere juntatzen da Lurraren Altxamenduak sarearen hitzorduetan.

FRANTZIAKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK

Inoiz baino gehiago, eskuin muturra boterera eraman dezaketen bozak

Eskuin muturreko RN izan zen Europako bozen gauean Emmanuel Macron presidenteak harturiko erabakiarekin poztu zen alderdi bakarra. Frantziako Legebiltzarra desegin eta hauteskunde berrietara deitu izanak kezka eragin zuen eskuinean zein ezkerrean. Europako bozetan garaile eta indarturik ateratako RNri Frantziako Legebiltzarra ere bideratzeko arriskua handia delako. Hala beharrez, kanpaina laburra baina intentsoa eramaten dabilta alderdi guztiak. Igande honetan izanen dute lehen itzulia.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Laburra ukan dute kanpainarako tarteak. Ekainaren 9ko Europako hauteskundeak emaitzak jakin bezain laster desegin zuen Frantziako Legebiltzarra Emmanuel Macron presidenteak, hilabeteko azken iganderako jarrita bozen lehen hitzordua –bigarrena, uztailaren 7an izanen da-. Aste bakar bat izan dute hautagaien hautatzeko, eta beste bi aste programa adosteko eta hautesleengana heltzeko. Estrategia elektoral ustez eraginkorrena hautaturik, buru-belarri sartuak dira kanpaina: ezkerreko alderdiek batasuna lehenetsi eta Fronte Popularra osatu dute; eskuin muturreko RN Bata-sun Nazionala alderdiak europarretan lorturiko emaitza onen gainean surfeatuz heldu nahi du garaipenera, lehen itzulitik aliantza batzuk lortuz gainera; eta erdian, Macron dabil ezkerrek

edo eskuin muturrak ekarriko luketen gobernu ezegonkorraren eta gobernagaitzaren mamua inarrostean, betiere eskuinago dituen hautesleei begi-kleinu xarmagarriak eginda. Bere gobernu politikaren aurkako haizea etenik gabe gogortuz doan honetan, badakielako irabazteko botoak –edo hobeki erranda, ez galtzekoak– eskuinaldean dituela.

Azken inkesten arabera, eskuin muturreko RN aterako litzateke garaile botoen %36arekin, ezkerreko Fronte Popularra bigarren –%27 inguru jasoz– eta Macronen Renaissance hirugarren litzateke, 2022an baino emaitza txarrago eginez –%18 inguru–.

Legebiltzarrerako 2022ko hauteskundeetan horrela banatu ziren aulkiak: 245 Macronen alderdiarentzat –106 aulki gutiagorekin, 2017ko gehiengoak galdu zuen–; NUPES ezkerreko bata-

sunak 137; RNk 89 –sekulako saltoa eginez, 2017an zortzi zituelako–; eskuinak 61 aulki eta horrez gain, beste hamabost ezkertiar, bederatzi eskuindar, hiru zentrista eta bestelako tendentziako hemezortzi. 288 aulki behar dira gehiengo osoa lortzeko eta Macroni begira dagoen aurkakotasuna ikusirik, ia ezinezkoa bihurtzen zaio. Zergatik deitu zuen, beraz, bozetara? Indarra galdurik duen eskuina eta zatiketek jandako ezkerrearen testuinguruan, eskuin muturraren parean kausituz garaile atera eta gehiengo osoa berreskuratzeko parioa egin zuela diote batzuek. "Suarekin jolastu" izana salatu zuten anitzek, eskuin muturra boterean jartzeko arrisku handia delako. Kalkulu txarra zuen gainera: batasuna gauzatu du ezkerrek eta eskuineko Errepublikanoak-eko zati bat RNri juntatu zaio. Funtsean, analisi batzuek



Eskuin muturreko RN alderdia kokatzen dute garaile inkesta guziek.

diote hori zuela gogoan: RN garaipenera eramatea, erakusteko eskuin muturrak ez dakiela gobernatzen, eta hori 2027ko presidentzialetarako Renaissance berri indarrean kokatzeko gisan.

MACRON, "BI MUTURREN" AURKA

Gehiengoa ezinbestekoa duela errepikatuz, *Macron konpatibleak* diren ezkerreko zein eskuineko hautesleei dei egiten die: "Soziodemokratik, erradikalak, ekologistak, demokrata kristauak, gaullistak", hots, "muturrekoen sukarran kausitzen ez diren guziak". Baina, 2017an bereganatu zituen bozkatzaile anitz galdu ditu, eta ezkerretik zein eskuinetik, jende andanak luke gobernutik bota nahi.

Berearen alde mintzatu beharrean, nahiago du aurkarien kontra mintzatu. Ezkerra "ezker muturtzat" dauka, "Frantzia Intsumisioa-ko muturrekoen" frontetzat, eta izua zabaltzen dabil: "Desadostasunean direnen eta adostasunik lortu ezinean ariko direnen" arteko "aliantza lotsagarria" da, "antisemitismoa", "komunitarismoa", "utzikeria", "antiparlamentarismoa" eta ekonomikoki zulora daramana. Ezkerra eskuin muturraren hein berean jartzea da gobernuaren postura: "Hauteskundeak muturrekoek irabaztea katastrofea litzateke frantsesen bizientzat", Gabriel Attal Lehen ministroaren hitzetan. Eskuin muturreko Vincent Bolloré miliar-

dunaren esku diren *mainstream* komunikabide handiek lan handia egin dute horren alde: Jean-Luc Mélenchon-en mamua sortu eta elikatu dute, antisemitismoa eta kaosa eskuin muturrean baino gehiago ezkerrean kokatuta.

Jakina da kanpainako adierazpen guztiak direla neurtuak. Horregatik erran daiteke bozkatzaile eskuindarrei mintzo zaiela Macron: eskuin muturraren termino ospetsua bereganatu eta ezkerren programa "erabat immigrazionistatzat" jo du. Trans pertsonen estatu zibila Herriko Etxean libreki eta kitorik egiteko ezkerreko proposamena "zentsugabetzat" jo du, berea ez den "jendarte-proiektu" hori kritikatu. Ezkerreko batzuen kexua piztu badu ere, komunikabideetan lekua okupatzeko eta eskuinaren gaitzera heltzeko balio izan dio eta kalkuluetan irabazle ateratu da.

Kontua da Fronte Popularrari zartakoak eman eta RNri hitz goxoak lutzatuta, ahuldu besterik ez duela egiten boterean gelditzeko behar duen boto baliagarriaren 'joker'-a -eskuin muturrari bidea mozteko parekoaren alde bozkatzea, gustuko ukan ala ez-. Bi itzulitara doazen bozketak direlako: ekainaren 30ean inskribituen %12,5 baino gehiago lortuko duenak ukanen du uztailearen 7rako txartela -buruz burukoak izaten dira nagusiki, hirugarren bat izanez gero, negoziazioetan akordio bat lortu eta sostengua erakusten

diolako bietariko bati-. RNren politika kritikatuzen dabil, baina hitz leunagoz: "RNren proiektuak ez dio zuen segurtasun ezari erantzunik ekarriko. Soilik



Koop
mitxelena
MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen
mekanizazioan espezialistak



Eziago industrialdea 21. HERNANI

943 55 25 12 - 16

info@talleresmitxelena.eus

www.talleresmitxelena.eus

diote "egoera ez doa ongi" eta ez dute mirakuiluzko erantzunik", zioen Macronen ekainaren 12ko prentsaurrekoan. RNren bozkatzaileri mintzo zaie, "herritarren haserrea entzun ez izanaren" autokritika eginez eta entzun nahi dutena adieraziz: "Sistema politikoa babestea ez da inoiz izan nire gauza".

Bigarren itzulirako zer nolako panorama izanen da? Macronen Renaissance alderdiaren eta ezkerren arteko lehian zertara deituko du RNk? Fronte Popularra eta RNren artean, eskuin muturrari bidea mozteko deia luzatuko al du Macronen, "balore errepublikarren alde egiteko" deia zabalduz –hori eskatuko luke Renaissance eta RN arteko buruz burukoentzat–? Renaissance eta eskuin muturraren artekoetan nor arterako da garaile? Zein izanen da Errepublikarrak-en postura? Galdera andana daude dilindan eta lehen itzuliaren bezperan ezer ez da argi.

FRONTE POPULARRA, ITXAROPENA BATASUNEAN

Eskuin muturrari bidea mozteko eta Macronen politika neoliberal eta antisozialaren parean harresia muntatzeko batasunaren parioa egin dute Alderdi Sozialistak, Frantzia Intsumisoak, Alderdi Komunistak eta Europa Ekologia alderdi ekologistak. Ipar Euskal Herrian, EH Bai koalizio aberzalea ere da Fronte Popularrean. 1936ko Legebiltzarrerako hauteskundeentzako ezkerreko alderdiek Fronte Popularra osatu zuten "faxismoaren arriskuari" aurre egiteko. 2024an lanjer beragatik dute batasuna lehenetsi. Desadostasunen gaitetik pasaz, programa zehatz bat adostu dute, gobernantzako lehen ehun egunetarako neurriak finkatuz. Benetako norabide aldaketa proposatzen dute, ekainaren 14ko prentsaurrekoan erran bezala, "bizitzak aldatzera" doazelako, "beldurra esperantzaz eta siderazioa eraikuntzaz ordezkatzeko". "Norabide aldaketa" da Michael Zemmour ekonomialari eta unibertsitariaren hitzetan, eta dienez horrela laburbildu daiteke ezkerren programa: erreforma antisozialen gelditzea, eros ahalmenaren emendioa, ondareen gaineko aberastasuna berreskuratzea, eta horrela ekonomia hobetzea. Ekonomikoki orekatua ez den programa dela dioten kritikei aurre egin nahian, 200 ekonomialari baino gehiagoren babesa plazaratu dute, tartean delarik 2019ko Ekonomiako Nobel saridun Esther Duflo.

Eskuin muturraren alde egindako herritar prekarioen konbentzitzea da

Komunikabide handiek Mélenchon mamua sortu dute, antisemitismoa eta kaosa eskuin muturrean baino gehiago ezkerrean kokatuta

ezkerren erronka nagusien artean. Horregatik, dabilta langileria auzoetan, langabezia handiko eskualdeetan zein *banlieue* auzo popularretan kanpaina bideratzen ari.

Ezkerreko blokearen alde egiteko deiak biderkatu dira hiru asteetan zehar: kirolari ospetsuak, giza eskubideen alde zein ekologismoaren alorrean dabiltzak elkarteak, erakunde feministak, beste-lako ekonomia eredu baten alde dabilen Attac elkarteak, kultur arloko eragileak, karrakara ateratako milaka eta milaka herritarrak... Baina maleruski, etxe gehienetara heltzen diren *mainstream* komunikabideak ez dira irakurketa horien bozgorailu.

ESKUIN MUTURRA, ZUNDAKETA ARABERA, LEHEN INDARRA

Europar hauteskundeetako garaipena festatzen ari zirela, bozkarioa bikoiztu ziren RNko militantei Macronen adierazpenak: Legebiltzarra beraien esku irudikatzeko une kolektiboa bizi zuten. Kanpainako azken egunetan garela, gobernatu ahal izateko gehiengo osoa "ezinbestekotzat" dutela errepikatzen dabilta. Hots, 89 diputatu izatetik 288ra pasa nahi du eskuin muturrak. Urrats potoloa, baina inkesta batzuen arabera lorgarria: 250-300 diputatu bideratzen dizkie Odoxa inkesta etxearen ekainaren 21eko zundaketak. Dena dela, aulki gehiago lortuko dituztela aurreikusitako dezakegu. Batetik, Errepublikanoak alderdiko buru Eric Ciottiren aldekoekin aliatuz aurkezten delako 62 hautesbarrutietan; bestetik, Reconquète alderdi faxistaren karta utzi eta RNa sostengatzen delako Marion Marechal ere; eta azkenik, krisi ekonomiko eta sozialaren testuinguruan RNaren diskurtsoak hautesle berri batzuk xarmatuko dituelako –europar hauteskundeetan gertatu

bezala–. Alderdiak asteburuan zabaldu du argumentu berri bat, gainera: RNtik kanpo diren batzuk izanen lituzkete gobernuan, eta "ezkerreko patriotei" ere dei egin diete.

Marine Le Penen eta Jordan Bardellaren argazkiak jarri dituzte hautesbarrutietako hautagaien afixetan, hain zuzen, horrek eragin lezakeelako: RNren lekuan lekuko hautagaiak usu ez dira ezagunak eta nahiago dute aurpegi ezagunen karta erabili. Programari dagokionez, betikoa: immigrazioaren aurkako eta segurtasunaren aldeko neurri zorrotzak, eta noski, herritarren gaizki izateaz eta etsipenaz baliatzen direnez, erosmen ahalmenean eraginen luketen hainbat promesa (elektrizitate fakturak gutitzea, balio erantsiaren gaineko zergaren ttipitzea eta beste).

ERREPUBLIKANOAK: MACRON ETA RN-AREN ARTEAN, TIRABIRAN

Disoluzioa aitzin 61 diputatu zituen Errepublikanoak alderdiak eta oraindik ere aulki batzuk galduko dituela aurreikusuten da. Errepublikarrak gabeko bigarren itzulia duten hautesbarrutietan bozkatzaileri eskuindar horiek eginen dutenak pisua ukanen du: eskuin muturrea joanen dira? Eskuin muturraren aurka eginen dute Renaissance ala Fronte Popularra bozkatzuz? Egiari zor, bigarren aukera hori irudikatzea geroz eta nekezagoa du. Abstentzioa edo boto zuria zenbatekoa ukanen dute?

Dena dela, alderdiaren presidentea RNri juntatu zaio –alderdiaren kexua eraginez– eta Europako hauteskundeetarako zerrendaburu izandako François-Xavier Bellamyk ere jakitera eman du ezkerren eta eskuin muturraren arteko bigarren itzulia izanez gero eskuin muturrarentzat eginen lukeela. Boto pertsonal gisa egin dituzte adierazpenak eta ez da –oraingoz– alderdiaren boto konsigna, baina eragina duela ezin uka.

EZJAKINTASUNA, BOZKETEN BEZPERA ARTE

Guziek dituzte abstentzionistak helburu. Kasik bi hautesletarik bat etxean gelditu zen ekainaren 9ko europar hauteskundeetan. Argi da hor izan daitekeela bata zein bestearen garaipenaren giltzetariko. Bozketarako hamar egun eskas zirela, prokurazio bidezko bozketek milioi bateko langa gaituta zuten –2022an baino sei aldiz gehiago dira–. Baliteke beraz parte-hartzea ohikoa baino altuagoa izatea. ●

Nork kontatzen dizu mundua?



“ ”

“Amorerik ematen ez duen oposizio iraultzaile baten beharra dago”

Kevin B. Anderson

Krisi klimatiko eta sozialak kolpaturiko mundu mailako testuinguruan, eta Leninen heriotzatik 100 urte igaro diren honetan, Kevin B. Andersonekin biltzeko parada izan dugu Bilbon. Soziologiako, zientzia politikoetako eta ikasketa feministetako irakaslea da Kaliforniako Unibertsitatean, eta *Marx at the margins* (Marx ertzetan, 2015) liburuaren egilea. Marxen eta Leninen idatzi eta irakaspenek egungo abagunea azaltzeko duten balioaz eta gaurkotasunaz galdetu diogu.

 IMANOL OIARTZABAL / ROSER ESPELT

Marx ertzetan liburuan langile klasearen deshumanizazioarekiko erresistentziaz ari zara, Kapitalaren arabera orduan determinatzen baita subjektu iraultzaile moderno gisa. Baina noiz ez da marxismoa humanista?

Marxek deskribatzen du giza harremanak nola dauden kosifikatuta. Kapitalismoa ez da soilik esplotazioa, deshumanizazioa ere bada: soldatak oso altuak izango balira, nagusiek ez lukete hainbeste plusbalio eskuratuko eta, hala ere, kapitalistentzat lan egiteak, kapitalismoaren lan egiteko eran, deshumanizazioa izaten jarraituko luke.

Marxi egotzi izan zaio historiaren ikuspegi lineala, eurozentrikoa, determinista eta ekonomizista edukitzea. Baina mendebaldekoak ez diren gizarteei begiratzean, aurreko beste baldintza batzuk aurkitu zituela diozu. Gaur egun existitzen al dira gizarte horiek?

Badaude oraindik hutsune edo tarte ez-kapitalistak, edo gutxienez hain kapitalistak ez direnak. Bizitzeko modu hauetako batzuk kapitalismoa baino lehenagotik datoz, langileek ez zituzten guttiz ahaztu hiri-eremu eta fabriketara mugitu zirenean. Adibidez, AEBetan eta mundu anglo-saxoian sindikatuei

“gremio” deitzen zieten, Erdi Aroko instituzio feudalari bezala. Horrek harreman sozial aurre-kapitalistarekiko nostalgia adierazten du, harremanak hain atomizatuak, hain inpersonalak, ez zirenekoa. Baina Marx ez da erromantikoa, *Manifestu Komunista*-n hori ere kritikatzeko du.

Corpus teoriko marxista nahikoa dela uste al duzu genero eta arraza zapalkuntza, edo auzi ekologikoa azaltzeko?


Kontzeptu berriagoekin hitz egin beharra dago, noski. Generoari dagokionez, Marx uste baino askoz interesgarriagoa

da. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari, eta emakumeen agentzia eta subjektibotasunari buruz, jendeak uste duena baino gehiago idatzi zuen. Hala ere, AEBetan behintzat, esan ohi dugu generoa, sexualitatea, eta LGTBIQ gai guztiak ezin direla Marx edo Engelsengan aurkitu.

Eta ekologiari dagokionez ere, uste baino gehiago dago, Marx pentsamendua garatu ahala anti-teknologiko bihurtzen baita. Berak benetan ez du kapitalismoaren barnean aurrerapen posible gehiago ikusten, eta hori bere bizitzaren amaiera aldera idazten dituen koadernoetan aurkitu da batez ere.

“ ”

**Marx pentsamendua
garatu ahala
anti-teknologiko
bihurtzen da, ez du
kapitalismoaren
barnean aurrerapen
posible gehiago
ikusten**



Mendebaldeko egungo gizarteak, Leninek 1914an izan zuen krisialdiaren pareko zerbait behar duela uste al duzu? Ongizatea, garapen ekonomikoa... dena birpentsatzeko beharra?

Bai, Mendebaldeko herrialdeak, AEBak, Frantzia eta abar, krisi sakonean daude. Eta ez naiz arazo ekonomikoez soilik ari: presidente neofaxista bat izateko benetakoa aukera dugu. Bizi dugun momentu hau birpentsatu behar dugu egiaz. Gazako gerra adibide gisa hartuta, [Karl] Kautskyk edo [Eduard] Bernsteinek 1914ko gerran egin bezala jokatzeko ari direnak ez dira gutxi: “Ez dago ongi, ez zaigu gustatzen”, esaten digute, baina ez dira gai oposizio argia egiteko. Beraz, bai, nolabaiteko momentu leninista edo marxista iraultzailea da honakoa, eta Rosa Luxemburg bezalako jendea ere gehituko nuke ideia horretara.

Leninen heriotzatik 100 urte igarota, zer uste duzu ikasi dezakegula harengandik gerraren inguruko narratibak eta gatazka inperialistak handitzen doazen garaiotan?

Hainbat gauza, egia esan. Lehendabizikoa dialektika da, ekarpen garrantzitsuak egin baitzituen. Bigarrena, inperialismoaren teoria. Nazio askapenerako mugimenduak abian daude oraindik, bai Euskal Herrian, bai Palestinan edo Rojavan. XXI. mendeko ezkerren partetik joera dago pentsatzeko abertzaletasuna beti erreakzionarioa dela. Baina abertzaletasuna dialektikoki ikusi behar dugu, eta nazio askapenaren zein estatua suntsitzearen kontzeptuei lotuta.

Eta hirugarrenik, Espainian M15 bezalako mugimenduak egon ziren. Baina bost edo sei urte igarota, Gazako gerrarekin ikusi dugu Bernie Sanders, Jeremy Corbyn, Podemos eta antzeko ezker erreformisten mugak zein diren. Beraz, sistemari eta bereziki estatuari aurka egiten dion eta amererik ematen ez duen oposizio iraultzaile baten beharra dago.

Lehen Mundu Gerran egin zuen bezala, egungo sozialdemokraziak gerrarako narratiba babesten duela uste duzu?

Gaur egun? Antzeko momentua da. Argi dago ez dela Lehen Mundu Gerra izan zen bezain une handia, zeinean milioika pertsona borrokatzera joan ziren. Baina antzekotasunak daude. Nahikoa heldua naiz eta Vietnamgo Gerraren aurkako



Sionistak palestinarren aldeko ikasleen kontra egiten Washingtonen, AEBetan.

WIKIMEDIA COMMONS

mugimenduan parte hartu nuen. Orduan ere, liberalak isilik mantendu ziren denbora luzez. Esparru pribatua gurekin ados zeudela esaten ziguten, baina ezin zutela hori adierazi. Garai hartan ez ziguten “antisemita” deitzen, “komunista” edo “estalinista” baizik. Komunista edo estalinista ez bazinen ere eskuindarrek “itzuli zaitetz Errusiara!” oihukatzen zizuten.

Diozunez, Mendebaldeko marxistek Lenini zor zioten marxismoaren “bihotz dialektikoa” berraurkitzea. Zerbait geratzen al da horretatik gaur egungo praxian? Ala marketinean eta post-politikan gabiltza Zizek-ek dioen bezala?

Oraindik asko ikas dezakegu Herbert Marcuse, Georg Lukács, Henri Lefebvre, nire mentore Raya Dunayevskaya edo C. L. R. James bezalako autoreengandik. Egia da orain marxistei lehen baina gutxiago interesatzen zaiela dialektika, baina uste dut hori ere aldatzen ari dela, bizi garen garaiaren adierazle. Mundu anglosaxoian filosofian eta zientzia sozialetan nagusi ziren positibismoa eta enpirismoa ahultzen ari dira; neoliberalismoaren ahultzearekin paraleloan doan zerbait da hori.

Garai onak dira pentsamendu kritikoa errentzat, korronte

“**Mendebaldeko herrialdeak krisi sakonean daude: presidente neofaxista bat izateko benetako aukera dugu**”

marxistentzat eta filosofiarentzat? Ala metatutako ezagutza guztia galtzen ari gara, “ezjakintasun eta alienazio” garaietan murgilduta?

AEBetan ezkerreko jendearen batzar askotara joaten naiz. Alde batetik, 60, 70 edo 80 urteko jendea topatu dezakezu bilera horietan, eta bestetik, 15 eta 40 artekoak. Ez dituzu, ordea, 40 eta 60 urte bitartekoak topatuko. Belaunaldi oso bat falta da, neoliberalismoaren belaunaldia, marxismoarekin harremanik ez duena. Baina gazteak mugimenduan sartzen direnean, ez bakarrik teorian, baita antolakuntzan edo praktikan ere, esperientzia hori berreskuratzen daiteke.

Zer diozu Gazako genozidioa salatuta eta Netanyahuaren erregimenari buruz lehendik zeuden ideiak birplanteatzen ari den AEBetako unibertsitateetako ikasle mugimenduen inguruan?

1960ko hamarkadatik AEBetan egon den ikasle mugimendu handiena da, belaunaldi oso bat aurrerapausoa ematen ari da. Egia da epe motzean eskuinari mesede egin liezaiokeela. Gogoratu behar da sionistei baimendu zitzaizela ikasleak hiru orduz erasotzea, indar polizialak begira zeuden bitartean. Eta hori UCLA unibertsitate “liberalean” izan zen, ez Ku Klux Klan-eko talde baten aurka ari zen hegoaldeko ikastetxeren batean. Baina horrek, jendea ikaratu ordez, mugimendua indartu du. Irakasleen babesa bereganatu dute eta sindikatu gehienak ere su-etena eskatzen ari dira.

Israelen genozidioaren ondorioz Gazako biztanleak jasaten ari diren sufrimendu ikaragarriak, eta horren aurrean beren lurra mantentzeko hartu duten erabaki sendoak, erreakzio erraldoia eragin du, ez bakarrik AEBetan, baita mundu osoan ere. AEBak ez dira Palestinari babesa ematearen abangoardian egon, baina gauza batzuk aldatzen ari direla dirudi, eta agian ikasleen kanpaldi horietatik zerbait berria jaio daiteke. ●

PODCASTAK



BTN podcasta Ziburuko Azokan grabatu zen lehenengo aldiz ARGIAko platotik kanpora. Yolanda Arrieta eta Bea Salaberri izan ziren gonbidatuak.

Zuzenean ez, baina grabatuta bai

ONINTZA IRURETA AZKUNE

tsaso Zubiria Etxeberriak esan dit aurtun udako oporrak luzeagoak egingo dituela, eta aste batzuk lehenago *Komunitatea* atalean idazteari utzi dio. Uda ondoren itzuliko dela hitz eman dit. Bada, besterik ezean, Onintza Irureta Azkuneraren artikuluarekin konformatu beharko duzue.

Eneritz Arzallus eta Manex Moreno ikus-entzunezko kontuetan aritzen diren lankideekin egon naiz berrikerian eta ekainaren 29rako daukaten plana kontatu didate. EHZ (Euskal Herria Zuzenean) musika jaialdira doaz asteburu pasa, musikaz gozatzeraz eta neurriko parranda egitera, nola ez; baina baita ere BTN podcasta grabatzera. Behin baino ez da atera ARGIAko platotik BTN saioa, hain zuzen ere, ekainaren 1ean Ziburuko Liburu eta Disko Azokan izan

ziren ARGIAko kamerak. Haizea Aranak eta Oihana Aranak Yolanda Arrieta eta Bea Salaberri idazleak elkarriketatu zituzten. Oraingoan aurkezle hirukotea arituko da Arberatze-Zilhekoa (Nafarroa Beherea) herriko platoan, alegia, Aner Euzkitze ez da faltako. Bi gonbidatu berezik hartuko dute parte ordubeteko saioan, baina lerro hauek irakurrita behintzat ez duzue jakingo nortzuk diren, Arzallusek argi eta garbi esan baitigu sekretua dela. Arzallusek azaldu digu EHZ garrantzitsua dela ARGIArentzat eta musika jaialdiaren erdigunean egon nahi dutela: "Saltsa dagoen tokian egon nahi dugu, han sortzen den giroa transmititu nahi dugu".

Beraz, bigarren aldiz BTN etxetik kanpo arituko da, eta lehenengo aldiz Kanaldude herri telebistarekin elkar-

lanean. Aldude herrian sortu eta gaur egun egoitza Bidarrain duen telebista da Kanaldude, Aldudarrak Bideo kooperatibak 1997an sortutako proiektua. ARGIAkoak eta Kanaldudekoak elkarrekin arituko dira BTNren grabazioan, eta aurrera begira ere, elkarlanak egiteko asmoa dute biek, proiektu zehatzez oraindik hizketan hasi ez badira ere.

Podcasta ekainaren 29an grabatuko dute, 12:00etan, eta uztailaren 2an, 20:00etatik aurrera ikusi ahal izango da ARGIAan eta Kanalduden. Uda aurreko azken saioa izango da eta BTNzaleek irailera arte itxaron beharko dute hurrengoak ikusteko. Orain arte bezala bi astean behin, umorea lagun, gonbidatuak xaxatzen arituko dira Haizea Arana, Oihana Arana eta Aner Euzkitze. ●

“EBAKI ETA BOTA” TEKNIKA



IÑIGO ARRUABARRENA
HAZIBERRIAK

Baso naturaletan estratu eta funtzio ezberdinak betetzen dituzten espezieak aurkitzen ditugu. Batzuek gaina hartuko dute, eta mende ugari bertan igaroko dituzte. Beste batzuek lehen urratsak emango dituzte, baso-kideengatik sakrifikatuko dira eta beraien gorpu ustelak sistemari eskainiko dizkiote. Sakrifizio espezie hauek basoa bultzatzen dute, lurra egitura hobetzen dute, beste zuhaitzak elikatzen dituzte eta hazi berriak laguntzen dituzte.

Idea hau geure eginez, landatutako baso batean ere helburu berbera duten espezieak landatu ditzakegu. Hauek, kasu gehienetan, ekoizpen espezieen azpitan edo tarteetan joango dira, hutsuneak betetzeko eta eguzki izpiak aprobetxatzeko. Baso jangarrietako sakrifizio espezieen helburua ez da desgertzea, ahalik eta denbora gehien irautea baizik, urtetan zehar ekosistemaren osotasunari beharrezko zerbitzu bat eskainita. Horregatik, organismo hauek moztzen edo kimatzen ditugunean zentzu batez egingo dugu, guztiz hil gabe, kimaketa garaia eta ekintzaren bortizkeria zainduta.

Garaiari erreparatuta, udaberria eta udazkena izan ohi dira aproposenak, eurria zein tenperatura egokiak direnean. Uda siku eta beroegia izan ohi da zabalitzen diren zaurientzako, negua, berriz, umel eta hotzegia. Udaberrian kimatzen bada, hostoa guztiz garatzen denean egin behar da eta udazkena aukeratzen bada, hostoa guztiz desagertu baino lehen ekin behar zaio. Udazkeneko kimaketak zuhaitz edo zuhaixkaren tamaina kontrolatzen lagunduko du, datorren urteko xurgatzaileak gutxiagotuta.

“Ebaki eta bota” teknika ezartzeko berragertze maila altua duen edozein



PORVENIRDESIGN.COM

Baso naturaletan badira gazterik hiltzen diren zuhaitzak eta beraien gorpu ustelak basoa aurrera ateratzen laguntzen dute eta lurra egitura hobetzen dute. “Erabili eta bota” teknikak ideia hori aplikatzen du landatutako basoetan.

landare, zuhaitz edo zuhaixka erabili daiteke. Belarretan ezagunena zoldabelarra izaten da, oso erraz hedatzen dena: biomasa ikaragarria sortzen duelako eta bere zuztar luzeekin arroka amaren elikagai ugari azaleratzen dituelako.

Zuhaixketan olibo-zumea da erregina. Berragertze gaitasun ikaragarria dute *Eleagnus* familiakoek eta nitrogenoz betetako biomasa kantitate itzelak eskaintzen dituzte. Nitrogeno finkatzaileak izateaz gain, erle eta zomorroak erakartzen dituzte beraien loreek eta emandako fruituek txoriak elikatzen.

Zuhaitzen kasuan lizarra da helburu honekin erabili daitekeen bertako zuhaitz bat, berragertze maila paregabea izateaz gain abereei bazkatzeko eskaini ahal zaielako. Eukalipto ere erabili genezake, berragertze izugarria eta hazkuntza oso bizkorra dituelako. Behin basoa ezarrita dagoenean eukalipto zuhaitza desagerrarazi nahi badugu, urte batzuek gainean egon beharko dugu, hosto bakar bat garatzen utzi gabe.

Polemikoa badirudi ere, basoek ez dituzte atzerrikoak baztertzen, aniztasuna integratzen dute, bertako egiten. Agian, basoa gehiago bizi behar dugu eta berarengandik zer edo zer ikasi. ●

A ZE FAUNA!

SINPLEAREN KONPLEXUTASUNA



IÑAKI SANZ-AZKUE

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

Gaztea denean ez du zalantzarako tarte askorik uzten. Suge gorbatadunak badu ezaugarri bat gainontzekoetatik bereizten duena: gorbata. Gorbata, edo batzuek deitzen dioten moduan, lepokoa. Izan ere, kolore arre edo ilun, berdexka edo urdina izan badaiteke ere gorputza, buruaren atzealdean lepoko zuri nabarmena izan ohi du. Hargatik, leku batzuetan suge lepozuria ere deitzen diote suge gorbatadun gazteari.

Ez gaitezen nahastu, ordea, biodibersitateak osatzen duen sare eder eta konplexu horren barruan dena ez baita hain sinplea eta erraza, eta horrek ematen dio, hein handi batean, bizitasuna zientziari. Konturatu baikara duela gutxi, bizi osoan suge gorbataduna deitu diogun hori ez dela bakarria Euskal Herrian. Espezie bakarra zena, bi direla esan baitigute ikerketa genetikoek. Hego Euskal Herrian suge gorbatadun iberiarra dagoen bitartean, Iparraldean iparraldeko suge gorbataduna dago. Oso antzekoak itxuraz haien artean, baina ezberdinak geneek esaten digutenaren arabera.

Hori gutxi ez eta, suge gorbatadun iberiarrak gaztetik heldura aldaketa izan ohi du, eta handitzen doan heinean, lepo atzeko gorbata zuria galtzen du. Eta hala, denborarekin suge handi samarra bihurtuko da. Baserritar askoren ustean gaztearen antza askorik ez duena. Horregatik, ahozkotasunean, sarri, bi espeziatzat jo dira gaztea eta heldua. Leku berean bizi diren bi suge bailiran.

Ezaguna da landa guneeetan. Izan ere, basoetako irekiguneak ez ezik, suge gorbatadun iberiarrak baserri inguruetako belardiak ere gustuko ditu. Hala, sarri esan izan digute belarra mozteko garaian ikusten direla. Azken aldian, ordea, makinak segaren lekua hartu duten honetan, asko hilik agertzen omen dira, makinak



EGOITZ ALKORTA

SUGE GORBATADUN
IBERIARRA*Natrix astreptophora***TALDEA:** Ornoduna/Narrastia.**NEURRIA:** 120 cm gehienez.**NON BIZI DA?** Belardi eta basoan, gunee hezeetan.**ZER JATEN DU?** Ornodun txikiak batez ere.**BABES MAILA:** Babesik gabea.

berak akabatuta. Eta hori, noski, ez da berri ona. Ezagutzen duten horiek bai baitakite inongo arriskurik ez duen suge dela: hori suge makala da. Ez du ezer egiten. Suge gorbatadun iberiarrak ez baitu pozoirik. Hainbat baserritarrek esan digun moduan, akabatzeko baino,

etxe inguruan edukitzeko da suge ona, sagu, arratoi eta ugaztun txikien jale amorratua baita.

Belardiez gain, eremu hezeak ere gustuko ditu. Hargatik, leku askotan erreka inguruetan, putzu edo aska inguruetan topatuko dugu. Igelak edo zapoak aurrean badaude ez die ezetzik esango mokadu horiei, eta hala, ondo elikatuta, lortuko du tamaina handi samarra. Ia 120 cm-tara iritsi daiteke.

Suge gorbatadunean, zientziak erakutsi dio ahozkotasunari, gaztea eta heldua espezie bera direla, eta genetikak zientziari, bakarria zela uste genuena, bi espezie direla. Ikertzaileek, ordea, lanean jarraitu beharko dute, Bidasoa inguruko suge gorbatadunak zein espeziatan kokatu ondo asmatzeko, eta jakiteko, benetan bien arteko banaketa marra non dagoen.

Izan ere, naturaren sinpletasunean dago konplexutasunik handiena. Hari buruzko ezagutza handitzen goazen heinean, gero eta gutxiago ezagutzen dugula sentiarazten digun horretan. ●

MINAK BIXIGARRI



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Zer min egiten digu piperrak? Eta piperminak? Zientio erdi bat pipermin (*Capsicum annuum*) landare landatua dut lehen-go ilbeheran eta aurten bai, aurten ikertu behar dut min hori... Piperminak mina izenean darama, ageri askoan, baina kontuz, ezkutuxeagoan izaten dute mina edo min puntua; adibidez, pikillo piperrak (*Capsicum annuum* "Pikillo") edo Ezpeletakoak (*Capsicum annuum* "Gorria"). Mina urruti du Angeluko biperrak eta izenak ederki dio: *Capsicum annuum* "Piper Ezti"; baita Gernikakoak ere, *Capsicum annuum* "Gernika".

Mina, hala ere, beharrezkoa dugu, ezta? Minik gabe, puntta txorrotxik gabe, bixigarririk gabe ez dut bizitza hautematen. Piper min horien guztien bixigarri horiek eskura izaten ditut sukaldean. Sukaldean jakiak prestatzerakoan eta mahaian prestatutakoak jaterakoan ere bai. Sukaldetik mahairako bide motz horrek baratzera narama beti. Gurean oso motza da zirkuitu hori, metro gutxi batzuetako kontua. Eta mina adigaitz: min horren bururatzetik minaren



JAKOBA ERREKONDO / ARGIA-CC-BY-SA

jaiotzara, lantzera, sormenera, min gain puntarainoko bidearen asmakuntza. Aho sabaiaren plazera orgasmatzerainoko zaintza erraza, alegia. Erraza eta zaila. Gero eta zailagoak zaizkit piper desberdinak ezagutu, haziak edo landareak topatu, garaiz ekarri, landatu, jagon eta uzta jasotzeko lanak. Baratzerainokoa eta han bertakoa lortuz gero, sukaldekoa eta mahaikoa putz egitea baino erraza-goak dira.

Behikundeak ere putz egiten du. Aspaldi honetan bar-bar dabil, batik bat inkomunikabideetan, behikentearen digestioa dela metano gasa, itxuraz planetarentzako edo eta gure bizimoduaren-

tzako kaltegarria, gero eta gehiago sortzearen errua. Gu garen zortzi mila milioi lagunok putzik sortuko ez bagenu bezala... Angela Quintas nutrizionistak, *Superpedorro* (puzkerrontzi alaena) liburuaren egileak, dio ohikoa dela pertsona batek egunean 15 eta 20 putz artean botatzea. Zortzi mila milioi lagun, hamabosena putz egunero, urtean 44 bilioi putz dira; hori bai metano isuri tzarra.

Behi-jendera bueltatuta, AEBetako Penn State unibertsitateko Leoni

Martins doktoregaiak behien elikadura hobetzeko eta behiek jatenak hobeto baliatzeko ikerketa bat egina du. Bertan 48 holstein behiri (hemen "frisona" esaten zaie) piperren mina sortzen duen kapsikum oleoerretxina gehitzearen eragina neurtu zuen. Eta emaitzak paregabeak izan ziren. Piperminetatik edo iltze-oliotik sortutako kapsizina hartutako behiek janaritik sortutako energia hobeto erabiltzen dute, eta espero ez den albo mesedea ere ekarri die: metano gutxiago isurtzea.

Nik aurreko ilbeheran landatu nuen pipermin saila. Metanoaren neurketa gero etorriko da. Gero berokoak. ●

ekologikoa, baserritik mahaira!



Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoen Kontseilua
Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi

Babesleak:



MENDIALDEKO ELIKAGAIAK

NAFARROAKO MENDIALDEKO 26 EKOIZLE BILDU DITUEN GIDA



GARAZI ZABALETA



Urteak daramatza Cederna Garalur landa garapenerako elkarrekin elikaduraren eta lehen sektorearen inguruko lanketa egiten Nafarroako Mendialdean. Elikadura osasuntsurako eta kontsumo jasangarriago baterako bidea egitea da asmoa, eta bide luze horretan, egitasmu berria gauzatu du: Mendialdeko elikagaien gida argitaratu dute, bederatzi udalerritako ekoizle eta eraldatzaileak batuta. Arantz, Areso, Basaburua, Betelu, Goizueta, Imotz, Larraun, Leitza eta Lekunberri daude gidan jasoak.

DINAMIKA ZABAL BATEN PARTE

2019an Mendialdeko elikadura proiektua martxan jartzeko teknikariaren kontratazioa egin zuten, eskualde zabaleko hamar udalen eta landa garapeneraren arteko hitzarmenaren bidez. Geroztik, hamaika ekimen antolatu dituzte lehen sektorea eta kontsumo jasangarria bultzatzeko: "Besteak beste, Azoka ibiltariaren ekimena jarri dugu martxan; udalerriz udalerriri, eskualdeko ekoizleen eta artisauen produktuekin egiten diren azokak dira", adierazi du Amairu Unzueta teknikariak.

Gaineratu duenez, eskualdeko produktuen gida ateratzeko ideia hasieratik izan zuten, baina tartean egon diren beste proiektu batzuek gaur arte atzeratzea ekarri dute. "Mendialdeko Elikadura Mahaia sortu dugu, Habelarte baserri-ter agroekologikoen elkarrekin ere sortu dute...". Geldirik ez dira egon, behintzat.

Gida osatzeko, nahitaezkoa zen lehenik eskualdeak hartuko duen mapa finkatzea. Horretarako, Nafarroako Gobernua zehaztutako tokiko mapan oinarritu dira, eta aurrez aipatutako hamar udalerririk eta Arano sartu dira gidan.

BERTAKOIA ETA BERTAKO SALTOKIETAN TOKIA DUENA

Gidan parte hartu ahal izateko irizpideak finkatzea izan zen bigarren lana. Langintza horretan aritu dira Mendialdeko Elikadura Mahaia, Habelarte baserri-ter agroekologikoen elkarrekin eta Leitza Kontsumo Taldea. "Garrantzitsua zen guretzat elikadura sistemako eragileen artean zehaztea irizpideak", dio Unzuetak. Urtarrileko lanketa horretatik bi irizpide atera zituzten: bertako produktuak izatea, Mendialdeko eskual-

dean ekoiztiak edo eraldatuak, eta, gutxienez eskualde horretako saltokiren batean saltzea. "Alde batetik, sektoreko ekoizleak eta eraldatzaileak ikusaraztea da asmoa, baina baita merkaturatze bide laburrak bultzatzea ere", azaldu du teknikariak.

Bi irizpide horiek betetzen dituzten 26 ekoizle eta eraldatzaile batu dira gidaren lehen argitalpenean. Produktu izarra esnekiak eta haragi gorria izan arren, denetik topatu daiteke bertan: ogia, sagardoa eta sagar zukua, eztiak, arrautzak, barazkiak, hestebeteak, taloak, txokolatea... "Gidak erakutsi digu eskualdeko zenbait saltoki eta ostatu inplikaturak daudela bertako produktuak sartzearrekin, eta horiei ere aitortza egin zaie", dio Unzuetak. Gidarekin batera, denda eta jatetxe horietan jartzeko identifikatzailea ere sortu dute, "Mendialdeko lehengaiak" dioena. "Kontsumitzailearentzat lagungarri izateaz gain, saltokiari ere ematen dio balioa", amaitu du Unzuetak. Eskualdeko saltokietan banatu dute gida, baina Cedernaren webgunean edonorentzat eskuragarri dago online bertsioa. ●

Neus Castellano eta Ferran Burguillos

“Liburutegi orok izan behar du dagoen lekuko biztanleen nukleo kulturala”



Munduko liburutegi publiko onenaren saria jaso zuen iaz Neus Castellano zuzentzen duen Bartzelonako Gabriel García Márquezek. Espazio “ekosistemikoak” sortzearen garrantzia nabarmendu du, zeina estuki loturik dagoen liburutegi eta espazio ororen diseinu eta arkitekturarekin. Baina hortik harago, erabiltzaileen eta zerbitzuaren arteko hartu-emanen jarri du fokua. Ferran Burguillos, berriz, Bartzelonako Liburutegien Kontsortzioko gerentea da. 40 liburutegi batzen ditu kontsortzioak, eta ikuspegi orokorrago batetik, planifikazioaz eta sare osoaren estrategiaz hitz egin du. Estreinakoz izan dira Bilbon, liburutegiez hizketan.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  HODEI TORRES / ARGIA CC BY-SA

Bilbora etorri zarete ALDEEK (Artxibo, Liburutegi, Dokumentazio zentroetako Euskal Elkarte) antolatutako kongresura.

Aurkezpen fitxak zera dio: “Diseinu on bat funtsezkoa da liburutegia kudeatzeko orduan”. Nondik hasiko ginateke? Zer proposatzen duzue?

Neus Castellano: Liburutegiak leku hibridoa izan behar du, partekatua. Hau da, ez da ez zure etxea eta ez zure lantokia.

Egoteko lekua ere bai, beste gauza askoren artean.

Castellano: Bai, eta hori loturik doa kolektiboan pentsatzearekin. Gero eta gehiago ari gara horretan.

Diseinu informagoak nagusi dira. Zuk kudeatzen duzun liburutegia, kasu.

Castellano: Altzairuek bestelako tonu ez hain serio bat eman behar diotela bistan da: puff-ak ipini, sofak, hamakak... Guk horixe egin dugu. Apalak ohi baino baxuago, espazioaren ikuspegi zabala goa edukitzeko, atak zabalik oro har... “Espazio ekosistemikoak sortu”, esaten diogu guk. Hainbat ekintza aldi berean egin ahal izateko, leku batean baino gehiagotan. Garrantzitsua da ere zenbait lekutan ezkutuan egon ohi diren hainbat gela ikusarazteko moduan ipintzea.

Badago oraindik ere pentsaera zurruna, liburutegiek erabateko

isiltasun eremu izan beharko luketela.

Ferran Burguillos: Behar dira eremu horiek ere bai, jakina. Pentsa, Espainiako AHTan ordainarazi egiten dizute bagoian isiltasuna egongo dela bermatzeko. Ez dut uste, hala ere, liburutegi osoa isiltasun eremu izan behar denik, ezta zatirik handiena ere. Irakurketa txokoak egon daitezke, baita gune informaletan lasai ederrean irakurtzen egon zaitezkeen lekuak ere, bereziki arreta handia eskatzen ez dizuten ariketak egiten.

Zer da liburutegia, edo zer izan beharko luke? Nola ulertzen duzue?

Burguillos: Liburutegi publiko bat, niretzat, gizartearen menara dagoen azpiegi-



tura bat da. Horixe zioen Eric Klinenberg soziologoak *Palaces for the people* (Jendearentzat palazioak) liburuan. Batetik, zerbitzu publikoa da, gizarteari zuzenean eskaintzen zaion espazio partekatu bat, zeinetan jendeak aktiboki edo pasiboki parte hartzen duen. Eta bestetik, hori horrela izanik, hainbat premia asetzeko edo erronka sozialei aurre egiteko balio dezake liburutegiak: berdintasuna bultzatu, bakardadeari aurre egin, elkartrukatu, kolektiboki hausnartu... Hori guztia, jakina, ezagutza eta kultura sustatuta. Gaur egun bizi dugun sistema kapitalistak gero eta aukera gutxiago eskaintzen ditu pentsatzeko, egoteko, harremanak egiteko eta partekatzeke. Horri guztiari aurre egiteko baliabidea da liburutegia.

Castellano: 22 urte daramatzat liburutegietan lanean, eta asko erreparatzen diot lehen eskutik ezagutu dudana eboluzioari. Duela hamar urte geneuzkan liburutegiak ez dira gaur egungo berdinak, eta bost urte barru irekiko ditugunak ere ez dira gaur egungoak izango. Geruzak txertatzen ari gatzaizkio liburutegi

ereduari. Zerbitzu gehiago sortzen dira, jendearen behar informatibo eta formatiboak aldatu egiten direlako. Zerbitzu digital gehiago eskaintzen ditugu, garaira egokituta gaude, eta jendearen parte-hartzean agerikoa da hori. Liburutegiak ja ez gara soilik liburuak mailegatzera mugatzen, ez gara hain estatikoak zentzu horretan.

Burguillos: Beti esan ohi dugu gustatuko litzaigukeela, edo helburua dela, jendea banan-banan sartzea liburutegian eta hamarnaka ateratzea bertatik. Alegia, hainbat formakuntza saio, irakurketa talde edo dena delakotik pasatu ondoren, askotariko harremanak egitea jendearekin.

Pentsatzen dut, eta Bartzelonatik zatoztenez hango adibideak jarrita, liburutegiak ez direla gauza bera izango Ravalen, Santsen edo errenta mailarik altuena duten auzoan.

Burguillos: Posta-kodeak ezberdintasuna markatzen du, eta asko. Agerikoa da hori. Baina ez liburutegiak dituen zerbi-

tzuen aldetik. Bizilekuaren arabera, norberak dituen baliabideek eragina dute liburutegirako sartzeko maneran. Jendea ez da berdin erlazionatzen auzo batean edo bestean, etxe bakoitzeko egoera aski ezberdina delako.

Gure sareko liburutegi guztiek ikuspegi eta anbizio bakar bat daukate. Zerbitzu kasik berberak aurki ditzakezu batean edo bestean liburuen katalogazioari dagokionean, irakurzaletasuna bultzatzerakoan edo dokumentu digitaletan. Gero, hori bai, liburutegi bakoitzak bere proiektu propioa du. Bartzelonako liburutegi bakoitza espezializatuta dago alor batean: zientzia, geografia eta bidaiak, feminismoa... Gabriel García Márquez liburutegiaren kasuan, literatura latinoamerikarra da ardatza.

Castellano: Aintzat hartu behar da García Márquez liburutegia Sant Martí barrutian dagoela [Bartzelona ipar ekialdean], Verneda auzoan, eta komunitate latinoamerikarrak indar handia duela. Auzo langilea da historikoki, migrazio olatu ugari bizi izan dituen, eraikin be-

reziki handiak eraiki ziren 1960-70eta-ko hamarkadetan, espazio oro har gutxi dago auzoan hainbeste jenderentzat... Auzokideentzat, hainbestetan eskatu ondoren, horrelako liburutegi bat edukitzea premiazkoa zen. Harrotasunez bizi dute gainera. *Vernedako Guggenheim* gisa ezagutzen dute zenbaitzuk auzoan. Aurrekoan eskatu zidaten kanpoan dauden zuhaitzak kentzeko, haien etxetik hobeto ikusteko liburutegia. Jakina, esan nien ezetz, zuhaitz horiek beraien funtzioa betetzen dutela!

Munduko liburutegi publiko onenaren saria eman zioten iaz Gabriel García Márquez liburutegiari. Horra iristeko, non bilatu dituzue erreferenteak?

Castellano: Urtetan eta urtetan bisitatu ditugu liburutegi nordikoak, eta horietako batean, gehien harritu gintuena, irratia zen. Ikaragarri ondo funtzionatzen zuen, baina ez genuen argi ikusten gure gizartean funtziona zezakeenik. Hala ere ikusi dugu baietz. Jende askok elikatzen

du Ràdio Maconda, eta sartu da Bartzelonako irratiaren sare komunitarioan. Orain, urte eta erdian, podcast gehien dituen irrati da, 150 inguru. Komunitate latinoamerikarrak podcast asko ditu, eta hezkuntza komunitatearekin ere ari gara lanean, Bigarren Hezkuntzako eta institutuko gazteekin. Alor teknikoa erakusten zaie azaletik bada ere, gidoiak egiten, informazioa bilatzen eta egiaztatzen, iturri sarea izaten, lokuzioa ikasten... Tokiko istorioak kontatzeko balio du, baita auzoaren eta hiriaren historian arakatzeko ere. Liburutegiaren proiektu gisa jaio zena, komunitatearen proiektua da orain.

Burguillos: Sorkuntza, indibiduala baino gehiago, kolektiboa delako. Hori da gakoa. Espazio partekatuak sortzearen garrantzia hor dago. Sistemak eta gizarteak jardun indibidualistara garamatza, eta hori baztertzeko lagundu behar du liburutegiak, teknologia elkarlanean erabilita, pentsatzeko txokoak sortuta, oro har erabakiak hartu, ekin eta egiteko. Bestela lokartu egingo da gizartea.

Geruzak gehitzen joatea dela esan duzue liburutegiaren erronka, gizartera egokitzea. Etorkizunera begira, Bartzelonako Liburutegiaren Kontsoltzioan zein dira identifikatuta dituzten ireki beharreko bideak?

Burguillos: Liburutegiko erabiltzaileak bihurtu behar ditugu gero eta parte-hartzaileago. Liburutegiak izan behar du espazio bat zeinaren jabe herritarren diren. Hori da xedea. Gero, erronka handiak ere badaude, transformazio digitalari begira oro har.

Pandemiaren ostean, atzera ere liburutegiak hasi gara lehen –Bartzelonan, bederen– geneukan izen ona eta erritmoa berreskuratzen, eta horretan segi behar da sakontzen, literaturaren arloan, dibulgazio filosofiko eta zientifikoa. Eta gakoa da, ezbairik gabe, kartelera interesgarria edukitzea. Berziki horrek funtzionatzen du irakurketa taldeetan.

Castellano: Hori da. Irratiaz hitz egin dugu, baina inork ez dezala pentsa



Bartzelonako Sant Martí barrutian dagoen Gabriel García Márquez liburutegiari eman zioten iaz mundu liburutegi onenaren saria.



irakurketa taldeak baztertu direnik. Haiek duten pisua ikaragarri handia da. Eta handitzen ari da irakurzale-tasuna. Liburu fisikoen maileguak, oker ez banago, %13 inguru igo dira 2022tik 2023ra.

Hego Euskal Herrian ere gora egin du, pandemia aurreko zifrak gaindituta.

Burguillos: Pandemia aurreko zifrak gainditu ditugu Bartzelonan ere, nahiz

Ferran Burguillos:

“Erabiltzaileak bihurtu behar ditugu parte-hartzaileago”



mantendu egiten den, gutxi gorabehera, bisitari kopurua. Horrek esan nahi du gehiago irakurtzen dela. Uste dut

pandemiak ezarri zuela inflexio puntua, eta jendeak sentitu duela premia irakurraldiak era kolektiboan egiteko.

Irrati bat daukazue García Márquezen, hainbat pisu ditu eraikinak, espazio ugari... Ezinbestean, apustu ekonomiko handia eskatzen dute horrelako proiektuek. Diru publiko asko, alegia.

Castellano: Politikariak seduzitu behar dira lehenbizi... Guk, Bartzelonan, sarea sortu eta proiektuak aurkeztu genituen, zalantzak genituen. Politikari bati saltzen diozu ideia, horrek bere taldea konbentzitu behar du, eta ondoren udal gobernu osoa. Baina begira, uste dut azken urteotan, Bartzelonan, liburutegiei zegozkien gaietan soilik ipini direla ados alderdi politikoak.

Burguillos: Bartzelonako eredia kontsentsu politikoarekin garatu zen. Lehenbiziko plan estrategikoa 1998an egin zen, eta liburutegien lurralde sarea indartu nahi zela argi zegoen. Izan ere, orduan, 18 liburutegi baino ez zituen Bartzelonan. Horietako batzuk, gainera, eskailera batzuen goian zeuden, eraikin publiko baten atikoan, bulego zaharkitu

TOPALEKUAK

elena aitzkoa
josu bilbao
eduardo chillida
laia estruch
sheroanawe hakihiwe
Juf. bea ortega y leto ybarra
christian salablanca
marianna simnett

TABAKALERA



EDUARDO CHILLIDA 100 AÑOS



erakusketa

2024.06.21
— 2024.10.06



ziruditen liburuz josita. Aldaketa estruktural handia gertatu da. Eta horretarako, apustu politikoa ezinbestekoa da, kontsentsua behar da, ekonomikoki indartzeko. Orain, Neusek esan duen moduan, alderdi politiko guztiek argi ikusten dute liburutegiaren eredu honek funtzionatzen duela, eta auzo elkarte askok eskatzen dituzte liburutegi gehiago. Bartzelonak 73 auzo ditu, eta auzo bakoitzak nahi du liburutegi bat, baina ezinezkoa da. Plan bat daukagu, hori bai, bizilekutik hamabost minutura oinez liburutegi bat egon dadila ziurtatzeko.

Hirietan errazagoa izango da horrelako liburutegi puskak irekitzea.

Burguillos: Liburutegi orok izan behar du dagoen lekuko biztanleen nukleo kulturala. Udalerri txikienean ere bai. Bartzelonako probintzian badaude udalerritxiki batzuk legez behartuta daudenak liburutegi bat edukitzera, eta horietan, baliabide gutxi edukita ere, herritarren zatitza puntu garrantzitsuak dira.

Muskizeko liburutegia bisitatzetik zatozte. Nola ikusi duzue?

Castellano: Liburutegi klasiko bat da, liburu askorekin, baina hezkuntza komunitatearekin proiektu dezente ditue-

Neus Castellano:

“Garaira egokituta gaude, eta jendearen parte-hartzean agerikoa da”



la iruditu zait. Orain, gainera, bazuten tailer bat adineko jendearekin, memoria historikoa lantzeko, eta formakuntza bat ere bazeukaten landareen ingurukoa.

Esan nahi dudana zera da: garrantzitsua da liburutegi eredu argi edukitzea, eta liburutegia auzoko edo herriko bitartean hedatu behar da. Hortik aurrera, planifikazioa eta programazioa da.

Burguillos: Baliabide gutxiarekin ere egin daitezke gauzak. Esku-hartze txikiak, baina eragina izan dezaketenak. Pentsatu nola daukazu antolatuta liburutegia. Liburuz josita dago? Guztiak mailegatzen dira? Ala badaude batzuk dagoeneko ez direnak jendearen interesekoak eta zaharkituta geratu dire-

nak? Horrela bada, hustuketa lan bat egin, apalak gutxitu, espazioa irabazi eta erakargarriago bilakatu dezakezu lekua, beste erabilera bat emanda. Eta jendearen parte-hartzea interesgarria izan daiteke prozesu horretan. Galdetu gazteei ea nola irudikatuko luketen, zer eskaintza jasotzea gustatuko litzaieken. Gune informala goak akaso... Izan daitezke hasteko modu bat.

Liburuek-eta hor segitu beharko dute, hala ere.

Burguillos: Jakina, liburutegiek haien esentzia mantendu behar dute, beste la gizarte-etxe edo horrelako zerbait bihurtuko lirarteke. Funtsean, baina, aipatutakoak egon behar du: kulturak. Gero eta jende gehiagok argiago ikusten du kultura eta hezkuntza funtsezko alorrak direla gizartea eraldatzeko.

Horrelako kongresu bat antolatzeak esan nahiko du eraldatze nahia badagoela.

Burguillos: Ea politikaririk gerturatzen den kongresura! [Barre egin dute biek]. Abiapuntu ona da, bai. Baina hemen ez zaudete hasiera puntuan. Esperientzia onak badaude, proiektu interesgarriak, tokikoak, eta horietatik ikastera ere bagezoz gu. ●

Ospitalepeko zigor-sarekada oroimenean



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Ospitalepea, 1944ko ekainaren 27a. Soldadu alemaniarrek sarekada egin zuten Zuberoako 80 biztanle inguruko herri txikian. Zortzi lagun hil zituzten zigor-ekintzan eta hemeretzi atxilotu, guztiak zibilak; horietatik bederatzi deportatuko zituzten eta kontzentrazio esparruetatik soilik bi irtengo ziren bizirik. Handik bi egunera, hilaren 29an, naziek beste sarekada bat egin zuten Ospitalepean, eta bi egun lehenago piztutako izua hauspotu zuten. Hainbat herritar galdekatu eta ondasunak errexisatu zizkieten.

Bigarren Mundu Gerra amaitzear zen, Paris handik bi hilabetera askatu zuten, baina Ospitalepea aspaldian zegoen gerra giroan murgilduta. 1939ko martxoan zabaldu zuten Gurseko esparrua Ospitalepetik lau kilometrora baitago. Hala, hasieran Espainiako Gerra Zibileko errefuxiatu errepublikarrak esparrurako bidean ikusten zituzten, kamioietan edo oinez. Gero Alemaniatik etorritako juduak iritsi ziren esparrura, baita Ospitalepeko etxeetara ere, janari eske nagusiki.

Naziek 1943an okupatu zuten ingurua eta orduan hasi zen makia antolatzen. Ospitalepeko makiak Londresekin harremanetan zeuden eta handik armak bidali zizkieten behin baino gehiagotan. 1944ko ekainean hamar-hogei maki zeuden Ospitalepean, bost etxetan gordeta. Baina, beldurrak eta mesfidantzak jota, ekainaren 23an herria uztea erabaki zuten.

Horregatik, handik lau egunera, alemaniarrek hildakoak eta atxilotutakoak zibilak izan ziren. Baina, salatari batek emandako informazioa medio, naziek bazekiten nor ibili zen makiei laguntza eta babesa ematen. Hala ere, sarekadaren lehen biktimarekin nahastu egin ziren. Albert Lassarre Gursekoa zen, baina Ospitalepean ari zen lanean. Alemaniarrek tiro egin ziotenean, arrebak azaldu ziren beste Lassarre baten bila ari zirela, erratu egin zirela. Orduan, alemaniarrek medikuari deitu zioten, baina, berandu,



MUSEMENT MEDERIC

Duela 80 urte naziek zigor-ekintza egin zuten ospitalepean, baina luzaroan gertatutakoa isilean gorde zuten herritarrek.

Albert Lassarre hil egin baitzen tiroen ondorioz.

BIZIA ETA OROIMENA SALBATZEN

Robert Elissondo (Ospitalepea, 1962) irakasle eta Ikerzaleak taldeko kidea da, sarekada hartako atxilotuetako baten semea, eta han gertatutakoak xehe ikeritu ditu. Besteak beste, Marie-Louise Lasserren testigantza bildu zuen. 2020an Miel Anjel Elustondok ARGIA n egin zion elkarrizketa batean kontatu zituen Marie eta Marie-Louise Lasserre Davances ama-alabek bizitakoak.

Marie-Louise François anaiarekin batera sartu zen erresistentzian, makian sartzen zirenei harrera egiteko. Alemaniarrek etxera sartu zitzaizkienean, anaiak ihes egitea lortu zuen. Ama-alabak atxilotu eta Baionara eraman zituzten lehenik, Bordera gero, eta handik hilabete bide luzea egin zuten “tren mamuan” Alemaniako Ravensbruck esparrura iritsi arte. Lan behartuak, gosea, jipoiak, gaixotasunak... 350 kilometroko bidea ere egin behar izan zuten Oriandenburg esparruraino. Zortzi hilabe-

teren buruan bizirik itzuli ziren biak. Elissondoren hitzetan, “nire iduriko, bi gertakari heroiko egin zituen Marie-Louisek: lehena, hiltzetik eskapatu zen; bigarrena, eta harrigarriena, ama, 60 urteko emaztea, nazi-zerrategietatik bizirik sarrarazi zuen. Adineko pertsonak ez ziren bizirik irauten ahal, baina Marie-Louisek ama bizirik egotien lagundu zuen egun oroz”.

Eta handik 60 urtera Elissondok berak, J.F Agerre ikerlariak eta Jean Loustau maki ohiak, besteak, gertatutakoa ahanzturatik salbatu zuten. Luzaroan isilean gorde ziren duela 80 urte gertatutakoak; maki ohiak urtero bildu ohi ziren Ospitalepeko oroitarrian, baina herritarrek, ekintza hartan zigortutako zibilek, ez zuten parte hartzen. “Luzaz, herritarrek pentsatu zuten, erran gabe, pagatuak zituztela erresistentziari zor zizkietenak, eta, bestalde, oroit naiz aita zena erraiten makiaren ki-deak buruarin eta espantu zirela”, zioen Elissondok. 2004an, ordea, aipatutakoen ekimenez, lehenengoz, denak batera bildu ziren, handik aurrera Ospitalepeko sarekadaren oroimenari bizirik eusteko. ●



Hitz gezidunak

Gaia: *Araba Euskaraz 2024

TEMA ----- TXIRRIN- GAREN JARLEKUA	UGAZTUN HARAGIJALE ----- LORIAZ BETEA	EGUZKIA	ZATI, PUSKA ----- NEKA, UNA	ZEREZKO ATZIZKIA ----- ANPEREA	... GAZTAINA, ITSAS GAZTAINA ----- * LEKUA	EGIPTOKO ERREGE ----- BORT, SASIKO	
		LURPEKO HILOBIA ----- EUSKAL FONEMA					
AZALEAN ERATZEN DEN LOHIA ----- HARTZEN DUENA				ERASO ----- ENERGIA			
					AISATU ADITZAREN ERROA ----- OROTS		
ALA	EUSKAL DISKOETXEA ----- ZALANTZA					MODU ATZIZKIA ----- PITZATU	
		LIPAR, ALDIUNE				PINU MOTA ----- LOTSAGABE	
NAFARROAKO HERRIA ----- TXAKUR							ERRANA
	SUFREA ----- ITXARON					HAMABI HILABETE ----- HURBIL	
DUT, GIPUZKOAN ----- * LELOA		UKAPEN ----- EUSKAL ARTISTEN ELKARTEA	NONBAIT ----- IZU	HIDROGENOA	TONA ----- NIGERIAKO ANTZINAKO KULTURA	SEGUNDOA ----- OIHU, HOTS	
				DENBORAL- DIA, BOLADA ----- JAINKO EGIPTOARRA			
ALDEA, EREMUA ----- BURUZAPI			TEILATUKO HODI ----- LITROA				
					KALABAZA		

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	4	5	1					
				4	5			
6	2	9		8	3	5		1
5	7	1		6	2		3	
	3			1		6		
		6		5			8	2
	8		6	3			7	5
	5					9		
	6	2	5	9	8			

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

- Hitz zakarrak esanez, eztabaidan.
- Beldurrak.
- Ibai gaineko pasabidea.
- Koaderno.
- Hautsaren araknido.

EBAZPENAK

- HIZKA
- IZUAK
- ZUBIA
- KAIER
- AKARO

4	7	2	5	9	8	3	1	4
8	9	2	7	4	6	8	5	1
6	4	3	2	7	1	2	7	5
4	9	6	3	5	7	1	8	2
2	3	8	4	1	9	6	5	7
5	7	1	8	6	2	2	4	3
6	2	9	7	8	3	5	4	1
3	1	7	4	5	8	2	6	9
8	4	5	1	2	6	7	9	3

V	A	I	U	K	V	A	N	I	L	E	L	N	V	M	
N	E	N	O	T	E	R	Z	O	Z	N	A	N	O	Z	
V	A	D	V	U	N	I	N	Z	I	N	A	E	V	M	
S	T	J	H	I	E	E							D		
E	R	T	E							S			O		
										I	S		U		
I	V	I	Z	I						O			E		
O	T		A	R						Z	I				
V	S	I	V	A	E	L	E	I	V	Z	T	R	V	H	
R														O	
V	A	N	O	K	A	T	K	A	V	K	A	V	E	L	Z
F														S	



Musika eta elkartasuna

UXUE GUTIERREZ LORENZO

Aretoetako kontzertuen afixek elementu komun bat izan ohi dute: bi (edo hiru) talde programatzen dira gau berean, baina bi taldeei ez zaie estatus berbera aitortzen. Hierarkia bat dago. Lehenago jotzen duena, gaztelaniaz *telonero* delakoa, kontzertu nagusiaren aurrekaria izaten da, ezezagunagoa edo xumeagoa delako. Bigarren jotzeko aukera duen taldea da talde nagusia, gaueko izarra. Talde nagusiak mugitzen du publikoa, eta hura ikusi nahian erosi ohi dute ikusleek sarrera.

Arauk markatzen duenaren aurka heldu naiz ni gaurko kontzertura. Programatutako bi emanaldien artean, lehenago arituko den artista da niretzat ezaguna: Elena Caballero rap abeslaria, La Basu izenez ezaguna. Bilboaldekoa (Etxebarrikoa zehazki), emakumea eta rap musikan aitzindaria. Inguru erdal-dunearn hazi den arren, hamarkadak da-

ramatza Elena Caballerok rapa euskaraz sortzen. La Basurekin batera, beste talde bat ariko dela dio afixak: Auxili. Bilaketa azkarra egin dut Interneten: 2005ean jaio zen talde valentziarra, lau disko kaleratu dituzte eta reggae musika dute oinarri. Ska eta rap doinuekin uztartzen dute reggae musika eta mezu politiko sozialak dira nagusi beraien kantuetan.

Auxiliren zenbait abesti entzun ondoren eta La Basurekin berriz topatzeko gogoz heldu naiz Kafe Antzokira. Kontzertua hasteko bost minuturen faltan sartu naiz aretora. Oso ikusle gutxi daukela ezin ukatu, baina ziur naiz La Basuren energiak eta *bibra onak* ikusle bakanak dantzan jarriko dituela. Bilakaera polita izan du kontzertuak, eta ahalegin betean aritu da musikaria: raparen eta reggaeren tokia aldarrikatu du artistak, emakumeek oholta gainean zein azpian tokia hartzera gonbidatu ditu eta

LA BASU + AUXILI

NOIZ: Ekainaren 14an

NON: Bilboko Kafe Antzokian


euskarazko sorkuntzan berretsi da. Bukatzeko, La Basu gogo aurkeztu ditugu lagun eta bidelagun dituen Auxili taldeko kideak.

Hasieratik argi utzi dute valentziarrek etxean bezala sentitzen direla Euskal Herrian. Hori izan da hein batean kontzertuak irau duen ordu eta erdia ardaztu duen ildo. Goxotasuna, energia positiboa eta Sirokak zioen 'elkartasuna da herrien arteko xamurtasuna' transmititu dute musikariek. Reggae, ska eta doinu dantzagarri astindu dute antzokia, eta pogo dantzaldi politak sortu dira bukaeran. Giro osasuntsua arnastu daiteke. Bi taldeak izan dira gai espazio seguru hori sortzeko. Valentzia eta Euskal Herria gertu egon dira gaur, gertu rapa eta reggae musika eta gertu kantuetako teoria eta zuzeneko praktika. Gora musika, herrien eta artisten arteko elkartasuna eta jai giro osasuntsua! ●



LIBURUA

Mo bueltatu da



DANI BLANCO / ARGIA

MO BEHI EUSKALDUN BATEN MEMORIAK

GIDOIA: PELLO VARELA

IRUDIAK: JUAN SUÁREZ

ITZULPENA: ASUN GARIKANO

ETA BERNARDO ATXAGA

PAMIELA, 2024

XABIER ETXANIZ ERLE

1991n argitaratu zuen Bernardo Atxagak *Behi euskaldun baten memoriak*. Liburuak ibilbide luzea eta arrakastatsua izan du euskaraz nahiz bestelako hizkuntzatan. Alemanian gehien saldutako liburuen artean egon zen, J. Eccleshare editore britainiarrak irakurri beharreko obratzat hartu zuen, gaztelaniaz milaka ale saldu ziren lehen urteetan... Gure artean ere, oso harrera ona izan zuen Mo behiak; lehen bi urteetan 20.000 ale saldu ziren.

Orain, aldiz, badirudi Balantzategi baserri inguruan 1936ko gerraostean jazotakoek ez dutela hainbeste erakartzen euskal irakurlea... nahiz eta nobelak betiko indarra eta balioa izan. Tragedia eta umorea uztartzen dituen kontakizun aparta, behi baten ikus-

puntutik gure herriko pasarte ilunaren kontakizuna.

Atxagak bederatzita kapitulutan banatu zituen Mo behiaren gertakariak, Balantzategiko hastapenetatik Soeur Pauline Bernardetterekin dituen elkarrizketetaraino. Orain, aldiz, Pello Varelak idatzi eta Juan Suarezek ilustraturiko eleberri grafiko bilakatuta, zazpi dira eleberriaren atalak, batzuk dexente luzeak, bestetzuk, aldiz, laburrak. Argumentuan ere aldaketatxo batzuk daude... baina nobela izatetik nobela grafikora pasatzean ohikoak dira aldaketak, ezin jatorrizkoak dioen gutzia kontatu!

Kolore biziz eta tonu ilunetan, elkarrizketetan jarriz narrazioaren pisu handiena, nobelaren nondik norakoa ederki jasotzen da *MO* liburuan. Irakurleak be-

rehala ikusiko du bere burua gerraosteko baserri batean murgilduta; Mo behiaren baitan ematen diren eztabaidak jasoko ditu eta, batez ere, La Vacherekin dituen elkarrizketen lekuko izango da.

Askotan komentatu izan da pelikulak liburua irakurtzeko grina itzal dezakeela; bai eta alderantzizko prozesua eman daitekeela ere. Alde horretatik, pozgarria da nobela grafiko hori argitaratu izana. Irakurleari, gozatzeaz gain, Mo behiaren nobelara jotzeko bidea irekitzen dio, horrela gogoeta eta gertakarietan sakontzeko; intriga eta emozioa sentitzeko; hizkuntzarekin jolasteko; eta gerraren eta eguneroko bortizkeriaren ondorioz sufrimendua ezagutzeko... baina, baita ere, umoreaz eta ateraldi barregarriez disfrutatzen. ●



MUSIKA

Neorromantizismoa bi estilotan



PATXI CASCANTE / EUSKADIKO ORKESTRA

Euskadiko Orkestra. Zuzendaria: Giancarlo Guerrero. Bakarlaria: Federico Colli (pianista). Egitaraua: **Rachmaninoven Piano eta Orkestrarako 2. Kontzertua, do minorrekoa, op. 18, eta Richard Straussen Macbeth, op. 23, eta Don Juan, op. 20 poema sinfonikoak.** Lekua: Iruñeko Baluarte Auditorioa. Data: Ekainaren 18a.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Amaitu da Euskadiko Orkestraren kontzertu-denboraldia, Iruñeko Baluartean egindako aparteko kontzertu batekin. Kontzertu ederra, entzuleen txalo zaparrada nahi duten horietakoa, pizgarri dezenterekin.

Pizgarri horietako lehena bakarlaria zen, Federico Colli italiarra, Salzburgo eta Leedseko lehiaketak irabazi dituena. 35 urteko piano-jotzailea bere belaunaldiko garrantzitsuenetakotzat hartzen da, eta horregatik, bertaratutakoen jakin-mina handia zen.

Bere gaitasunak frogatzeko, Collik Rachmaninoven *2. Pianorako kontzertu* zoragarria eta beti-inspiratzailea interpretatu zuen. Konpositore errusiar horren kontzertu handiena hirugarrena dela uste dugu askok, folklore errusia-

rraren iturrietatik gehien edaten duena, magikoa eta erabat bertuosistikoa, baina bigarrena da gehien entzuten dena eta zabalduena. Besteak beste, Noel Cowarden *Brief Encounter* eta Billy Wilderren *The seven year itch* (Tentazioa goian bizida) filmetan entzun ahal izan ditugu obra horren pasarteak. Ez da harrizkeoa pelikula horietan eta beste batzuetan sartzea. Kontzertu melodiatsua da, orkestrazio oparoa duena, tema ahaztezinez betea, eta piano-jotzailearen distira ahalbidez duena.

Interpretazioari dagokionez, zertxobait irregularra gertatu zen, batez ere lehen mugimenduan: nolabaiteko dekalajea egon zen orkestraren eta bakarlariaren artean, bien *rubati*-ak ondo egokituko ez balira bezala. Agian horregatik, une batzuetan piano-jotzailea neurtue-

gia edo mekaniko samarra zen bere interpretazioan. Hala ere, bere teknika bikaina eta partituraren ikuspegi originala antzeman ahal izan ziren. Normalean itzalpean egoten diren motiboak, ezku-tuagokoak, Collik nabarmendu egiten zituen beste ikuspegi bat emanez. Hirugarren mugimendua bikain amaitu zen, eta ikusleek gogoz txalotu zuten.

Zuzendaria –Giancarlo Guerrero, kontzertuaren beste pizgarrietako baterosoago ikusi genuen bigarren zatian. Richard Straussen poema sinfonikoen oldarra eta soinu borobila ezin hobeto egokitzen dira Guerreroren zuzendaritza estilora. Straussen gaztaroko bi lan horiek balio izan zuten zuzendariak kontrasteak sortzeko eta taldeari dinamismo berezia emateko duen gaitasuna erakusteko. Bikain benetan. ●

Zezena txosna barruan

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Bagindoazen ba Hernaniko Kale Nagusian behera, Plaza Berrira iristean kartel hura adarka etorri zitzaidanean. Ezin izan nion errektorerik egin, ipurdiz gora bota ninduen: “Zezenak herriaren festa!”. Kordea berreskuratu nuenean atera nion argazkia. Eta behin hasita, zintzilikatu nuen muskerraren eta mastodontearen sareetan ere, ondoko esaldiarekin: “Karlismoa bizi da”. Esan banuen, esan nuen.

Esplikazioak, ezer baino lehen: karlismoa diodanean, ez naiz ari hitzaren zentzu ideologiko itxiaz, ezta historikoki izan dituen adierazpenez ere. Badakit kartel hori jarri dutenak ez direla Zumalakarregiren eta Santakruzen jarraitzaile –ezta, kontu berrixegoak aipatzeagatik, Karlos Hugo Borboi-Parmakoaren ildoko sozialismo autogestionarioaren militante ere-. Iruditzen zait, ordea, “herriarena” zer den defi-

nitzeko modu horrek gordetzen duela abertzaletasuna koskortu aurretik gure bailaretan ondo errotuta zegoen euskal identitate baten lurrina.

Abertzaleei zezen-kontuak problematiko samarrak gertatu izan zaizkie sarri, nekez irentsi izan dituzte korridak: hain dago espainolki kodetua animalia adardunak albondigak bezala zula-zula egin eta plazako hondar gainean odolostuta akabatzen dituen ikuskizuna, “euskal endaren ohitura garbijak” *pack*-etik kanpo geratu behar zuela. Salbuespenak badira noski –Jon Idigoras aipatu zidan batek-, baina batez ere, nik uste, *in medio virtus et in vino veritas* izan dela urtetako kontsigna herri askotako jaietan: zezenketarik ez, baina sokamuturra bai; eta atera beste baxoerdi bat.

Azkeneko hamar urteetan ordea, bateko politizazio forma berriak eta basteiko naziogintzaren ahultzea, eztabai-

da atera egin da erdiko kale horretatik. Newtonen hirugarren legea erabiliz esplikatu zuen Eli Pagolak *Hernaniko Kronika*-n iaz publikatutako erreportaje mamitsuan –“Sokamuturra, korapilo bat plazaren erdian”–: 2014an A gorputzak –mugimendu anti-espezistak– indar bat eragin zuen, animaliak festetan horrela erabiltzea krudelkeria zela salatuz; eta B gorputzak –gerora Sokamuturra Bai taldean antolatuta zenak– intentsitate bereko indarrez erantzun zuen ohitura mantentzearen alde.

Dema horretan ze alde aukeratu? Pertsonalki, sokamuturra erabat kenduko balute pena handirik ez, uste baitut asuntuan parte hartzen duten piztia guztientzat dela arriskutsua: zezenarentzat noski; baina baita gaupasa multi-intoxikatzaile baten ondoren hain zomorro handiaren aurrean azioaren bat egiteko zinbulu-zinbulu korrika hasten den gizaberearentzat ere. Azken urteetan bezala bi egunez egiten badute berriz, alde ez naiz egongo, baina ez dit kontrako pasio berezirik ere pizten.

Beste zerbaitek arduratzen nau gehiago, alegia, nola ari den konfiguratzeko gerratxo kultural honen eta beste askoren bidez eszizio sozial bat, geroz eta gehiagotan aurrez aurre jartzen dituen adiskidetu ezinezko bi bloke –“animalistak vs. zezenzaleak” eztabaida ez baita, azken finean, “hiritar progre multikultiak vs. herritar tradiziozale jatorrak” debate orokorraren kapitulu bat besterik-. Bueltan-bueltan, liberalen eta karlisten xextrak itzuliko zaizkigu martxa honetan, foruak eta erregeak ahaztuta, baina elkarrri begiak erazteko grinari harrigarriki XIX. mendean bezain fuerte utsiz.

Gelaren erdian dagoen elefantea baino, txosna barruan dabilen zezena da kontua hemen. Ikusten ausartu behar. ●





%100 kotoi organikoz landutako kamiseta hau erosita, ekarpen ekonomikoa egingo diozu Amillubi proiektuari, baita ARGIA kazetaritza proiektu independenteari ere. Informazio + www.amillubi.eus

Prezioa **22 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
BIZUM bidez ordaindu daiteke.



azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45



EL KARRIZKETA

BAT

Erakusketa
2024-06-08
San Telmo Museoa

CHILLIDA

ETA ARTEAK



EDUARDO
CHILLIDA
100 URTE

Antolatzailea:

STM
San Telmo Museoa



DX
donostia
kultura

Erakunde babesleak:

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA SALA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lirioetza, Gazteria
eta Kirol Departamentua



**ETORKIZUNA
ORAIN**

1950-1970

www.santelmomuseoa.eus